



URKIOLAKO LOREAK

URKIOLAKO NATUR PARKEAK 25 URTE BETE DITU



KRABELINA (*Dianthus hyssopifolius*)



LILIPA (*Narcissus pseudonarcissus*)



UDABERRI LOREA (*Primula acaulis*)



ASKARI LOREA (*Merendera montana*)



HATZ BELARRA (*Knautia arvensis*)



EGUZKI-IHINTZA (*Drosera rotundifolia*)



EUSKAL HERRIKO
NATURA

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.

3/1996 DEKRETUA, urtarilaren 9koa, Elkarte herri-onurakoa dela aintzatesten duena.

AURKIBIDEA

Hamabigarren urtea - 77.zk - 2014ko MARTXOA-APIRILA

EDITORIALA



Urkiolako Parke Naturala, bertako paisajearen berezitasuna nahiz balio ekologiko handia direla bide Bizkaiko Naturaren bitxi bat dugu. Bertako baso, haran eta haitzarte izugarrietan milaka era ezberdin hartzen dituzten izaki unibertso oparoa bizi da. Urkiolako Parke Naturalaren sornaren 25. urteurrena ospatzeko, (1989. urteko martxoan) ale hau argitaratu egin dugu bere florari eskainia. Honen helburua ez da inolaz ere Urkiolan katalogatu diren 700 espezieak erakustea. Parkean ezagutzen diren landareen artean, lore deigarriak, identifikatzeko errazak direnak eta aparteko berezitasunak dituztenak aukeratu ditugu. Aldizkaria hau mendi hauetatik zabiltzanean erabilgarria suertatuko zaizulakoan gaude. Inguratzen gaituzten landareak hobeto ezagutzen laguntzen badio norbaiti, betea izango da argitalpen honen helburu nagusia, hori baita asmoa. Urkiolako Natur Parkeko aberastasunak eza-gutzera ematea.

Fernando Pedro Pérez
(Zuzendaria)



Urkiolako Natur Parkeak
25 urte bete ditu4
Pagadia eta urkiaren flora7
Gorostia8
Garatxo-belarra9
Lilipa11
Baso misto eta ameztiaren landare-
tza Urkiolako Parke Naturalean12
Basoetako atxaparra14
Intsusua beltza15
Otondo-belarra16
Artadietako landaretza17
Urkiolako Parke Naturalean17
Gartxu hostozabala19



Erratza21
Urkiolako Parke Naturaleko
sastrakadietan aurkitzen den flora23
Laharra25
Krabelina26
Ainar kantauriarra27
Urkiolako Parke Naturaleko
larreetako flora29
Milorria30
Mendiko usobelarra32
Hirustazuria33
Urrebotoia34
Urkiolako Parke Naturaleko
ingurune harritsuetako
komunitateen flora37
Ezki hostozabala39
Erla-Bedarra41
Sugegorri-belarra43



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakziorburua: Iñaki Landaluze.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta.
Anaut Paterson, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Elena Carriedo.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 4.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 475 28 83. e-maila: adeve.2@euskalnet.net

Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarteak.



HARPIDETZA-ORRIA

Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZAren arteko hitzarmena dela eta WWW.euskomedia.org/adeve



Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83

URKIOLAKO NATUR PARKEAK 25 URTE BETE DITU

Euskadiko lehenengo parke naturalak 25 urte bete ditu. 1989. urteko martxoaren 27an izendatu zuten eta azken urteotan bere kontserbazio maila eta baita Euskadiko hiritarren sentsibilizazioa ere hobetu egin da.

Urkiolako Natur Parkeak, Bizkaia eta Arabako lurraldeen artean banatzen ditu bere lurrak, bakoitzari bere azaleraren %85-a eta %15-a dagozkielarik hurrenez hurren.

Parkeak, Durangaldeko mendiak hartzen ditu bere mugen barruan, Belatxikietatik Amorebietako udalerrian, Tellamendiraino Aramaion. Ia 6.000 hektareako azalera duen naturgune hau Euskadiko lehen Natur Parkea izendatu zen 1989an. Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiek kudeatutako gune babestu honen helburu nagusiak Durangaldeko mendien kontserbazioa eta bertoko naturaren babesarekin bateragarriak diren giza jarduera, tradizionalak zein berriak mantendu eta bultzatzea dira.

Urkiolako paisaia kareharrizko mendizerra malkartsuak nabarmentzen dira. Horien azpitik larreak dituzten mendi lauagoak eta basoz estalitako mendi hegaleak eta haran estuak daude. Mendi asko 1.000 metroko altueratik gorakoak dira eta tontor guztien artean 1.330 metroko Anboto gailentzen da, Parkeko mendirik altuena. Natur Parkeko sarbide, Durango eta Gasteiz lotzen dituen Bi-623 errepidean kokatuta dagoen Urkiolako mendatea da. Bertatik hasita, luzera eta zailtasun ezberdineko txangoak burutu daitezke, Parkeko landaredia eta flora adierazgarriena ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen dutenak. Mendatetik hurbil, Saibi mendiranzko bidea hasten den lekuan, Toki Alai Interpretazio Zentroa ageri da, Parkeari buruzko interpretaziozko panelen erakusketa,



ikus-entzunezko emanaldia eta informazio gehigarri ugariz hornitua.

Estalki berde bat Parkearentzat

Urkiolako paisaia, gailur harritsu malkarrenetan izan ezik, landareen estalki berde zabal batez jantzita dago. Estalki hori osatzen duen espezie bakoitzak, leku zehatz batean bizitzea baimentzen dizkion ingurunearekiko moldaera berezi batzuk garatu ditu milaka urteetan zehar, nahiz eta sarritan, ingurumen baldintza desfaboragarriak eta beste espezie batzuekiko konpetentziari aurre egin behar dien. Landare gehienek, beraien biologiaren ezaugarriak direla eta, habitat ezin hobeak dute hazteko eta paisaia aztertzerakoan berehala ohartuko gara antzeko ingurumen baldintzak dituzten lekuetan bizi diren espezieen multzoek komunitate bereziak sortzen dituztela. Urkiolako landare komunitate hedatuenetakoa den pagadia esate baterako, 500-600 metrotik gorako mendietan aurkitzen da gehienetan, hor ematen baita pagoak behar duen ezinbesteko hezetasuna. Egutera idorragoetan berriz, eta batez ere lurzoru hareatsuan, ameztia gailentzen da.

Mendi hauetako erliebeak, klimak eta lurzoru motak ingurumen baldintza ezberdineko txokoak sortzen dituzte eta ondorioz landare komunitate ezberdinak aurkituko ditugu ere, hala nola, artadia leku harritsu eta lehorretan, haltzadia erreka bazterretan eta pagadia mendialde euritsuetan. Landare komunitateak ez dira landareen multzo itxi eta isolatuak eta ondorioz, hainbat espezie komunitate batean zein bestean ager daitezke. Leku batetik besterako ingurumen baldintzen alda-



ketan bat-batekoak izan daitezke batzuetan; erreka batetik ondoko basora daudenak adibidez. Baina sarritan, gradualak izan ohi dira tarte horietan landarediaren trantsizio aldeak sortuz. Hariztia eta pagadia elkartzen diren lekuan esate baterako, baso mistoa topa daiteke.

Amaitzeko, aurreko lerroetan azalduetako esaldi batean laburbil genezakeen: ingurumen baldintza berezietan elkarrekin bizi ohi diren espezieek landare komunitateak osatzen dituzte eta paisaia edo lurralde bateko landare komunitateen multzoari landaredia deritzogu.

Landareak eta beraien ingurunea

Lurralde bateko landaredia mota batekoa ala bestekoa izatea ingurumen faktore ezberdinen arabera da. Klima, lurzorua eta erliebea, landaredian eragiten duten faktore nagusiak izan ohi dira, baina ez bakarrik. Garrantzi handia dute aurrekoekin batera, Lurraren historian zehar gertatu diren klimaren aldaketek, kontinenteen mugimenduek zein gizakiak azken milurtekoetan eragindako aldaketek. Gizakia, pixkanaka-pixkanaka batzuetan eta oso azkar bestetan, bere ingurune landaredia aldatuz joan da, sarritan basoak desagerraraziz eta beste batzuetan kanpoko lurraldeetatik ekarritako espezieak landatuz. Horren ondorioz esate baterako, Ipar Amerika, Japonia edo




Europako beste leku batzuetako koniferoak aurki ditzakegu Urkiolako mendietan.

Urkiolan, klima atlantiar euritsua da nagusi; urteko batez besteko tenperatura 11° C-koa da eta euriztapena 1.550 mm-koa. Baldintza horiek landaredia oparo baten garapenerako aproposak dira, urte osoan berde mantentzen den paisaia sortuz. Neguan tenperatura jaisten da eta sarritan elurrez estaltzen dira mendiak. Elurak ez du asko irauten eta egun gutxiren buruan urtu egiten da tenperatura igozten delako. Udan bestalde, beste urte sasoiak baino lehorragoa izan arren, ohizkoak dira lainoa zein euria eta tenperatura nahiko epela mantentzen da.

Erliebeak berebiziko garrantzia du Urkiolako landareen banaketan. Lurralde honetako klima euritsua eta hezea den arren, erliebearen ezberdintasunek diferentzia nabariak sortzen dituzte ingurumen baldintzen. Parkeko mendien ipar magalak eta tontorrak hego magalak baino hezeagoak dira, euria dakarten hodeiak itsasaldetik datozelako gehienetan eta gainera tontor malkarrenetan itsatsi egiten direlako. Bestalde, mendian gora egin ahala, euriztapena handiagoa izateaz gain, tenperatura jaitsi egiten da eta laino ugariak hezetasuna areagotzea eragiten dute. Klima eta erliebearen eragina kontutan hartuta, landare komunitate bereizgarriak dituzten bi estai bioklimatiko bereiz daitezke mendi hauetan, estai muinotarra 600 metrotik behera eta estai menditarra 600 metrotik gora.

Lurzorua da landareengan eragin handia duen beste faktoreetako bat. Lurzorua sakona edo harritsua izateak, landareentzako elikagaietan txirra edo aberatsa izateak eta karetsua ala silizeoa izateak, landare batzuk ala besteak agertzea ahalbidetzen dute. Badaude hainbat landare esate baterako, basoetako lurzoru aberats eta



sakonetan soilik hazten direnak, beste batzuk aldiz, gailur altuenetako kareharritzko harkaitzetan bizi dira, lehiakide gutxiko lekuetan.

Ez da beti berdina izan


Urkiolako Natur Parkean ikusten dugun landaredia ez da beti horrelakoa izan eta erraza da horretaz konturatzea, duela 500 urte lurralde honetan pinurik, alertzerik zein altziferik ez zegoela pentsatzen badugu; gizakiok landatuta, azalera handiak estaltzen dituzte gaur egun.

Lurraren historian milaka urte batzuk atzerago joango bagina, zehazki duela 10.000 urte baino gehiago izandako izotz arora, landaredia oso ezberdina aurkituko genukeen. Klima hotzegia zenez, Urkiolan ez zen basorik, elurretara mol-datutako sastrakak eta belarrak baizik. Orduko testigantza dira Mugarra eta Anbotoko tontorretan aurki daitezkeen hainbat landare menditar, Aster alpinus horien artean, Pirinioetan edo Europako Mendikatea bezalako mendi altuetan arruntagoak diren landareak hain zuzen. Bestalde, garai epelagoetako testigantza gisa, klima mediterraneoa ohizkoak diren artadiak ageri dira, gehienetan lurzoru lehorren gainean.

Jadanik historiaurrean, Urkiolako haizuloetan gordetzen ziren gizakiak egurretarako zuhaitzak mozten hasiko ziren ziurrenik. Inguruneke landaredia aldatzen hasiko ziren, pixkanaka-pixkanaka abereentzako larreak sortuz, bertakoak ez diren espezie berriak ekarriz eta azkenik, gaur egun baserriak eta bestelako eraikuntzak dauden lekuetan landaredia erabat desagerraraziz.

Neolito garaian (duela 3-5 mila urte) hasi zen artzaintza Euskal Herrian eta Urkiolako mendietako gailur gehienak soilduz joan ziren azienden mesedeetan. Garai horretan bestalde, ordura arte lurralde hauetan ezezaguna zen eta gaur egun oso hedatua dagoen zuhaitza iritsi zen Europako ekialdetik, pagoa, baso mota berria sortuko zuena.

Neolitotik aurrera, basoko egurraren erabilera funtsezkoa bilakatuko da garatuko diren gizarte ezberdinetan, brontze eta burdinaren garaietatik gaur egunera. Eragin handia



izango du horrek Urkiolako landaredian, erdi arotik aurrera bereziki, eta burdinolen zein untziolen ikatz eta egur eska-riak basoak erabat itxuraldatu zituen. Ikazkintza oso hedatuta egon zen Urkiolako mendietan XX. mendearen erdial-dera arte eta oso nabaria da bere eragina pago zahar lepa-tuetan. Bestalde, mende horren 50 hamarkadatik aurrera, aldaketa sakon bat emango da basoaren erabileran base-riaren krisialdiak bultzatuta. Baserriko labore tradizionalak atzera egin ahala, baserriarrek diru iturri errentagarriagoa bilatuko dute pinuen landaketan. Ondorioz, larre eta berto-ko baso asko desagertu egin ziren landaketen mesedee-tan.

Gaur egungo landaredia beraz, historia luze baten isla eta emaitza da. Gainera, ez dugu ahaztu behar landareak izaki bizidunak direla. Animalia gehienek egin ohi duten bezala, landareak mugitu egiten dira ere, baina noski, hankak edo hegoak erabili beharrean beste modu batzuk dituzte leku batetik bestera joateko. Hazien bitartez adibidez, landare askok urruneko lurraldeetara edo leku sinesgaitzetara iris-tea lortzen dute eta horretarako haizeaz edo animaliez balia daitezke gainera. Gorostiarena dugu fenomeno horren adibide argigarri bat. Zozoak bere fruituak jaten dituenean, haziak garraiatu eta basoan sakabanatzen ditu.

Ikusi al duzue noizbait gorosti txiki bat haritz edo pago zahar baten gainean hazten? Zozoak du erant-zuna.

Aurreko azalpen guztiek argi erakusten dute ezin dela landaredia landare multzo finko eta mugiezint-zat hartu. Espezieak lekuz aldatzen dira, landare komunitateak sortu eta desagertu egiten dira, azken finean, landaredia aldatu egiten da. Eta aldaketa horiek geldoak diren arren, gizaki baten bizitza nahi-koa izan daiteke horretaz ohartarazteko. Pentsa dezagun esaterako, landareri gabe dagoen lursail abandonatu batek jasango dituen aldaketetan. Hilabete batzuen buruan belarrez eta landare txikiz betetzen da, urte batzuen buruan zuhaixkak hazi eta lursaila bereganatzen dute eta hamarkada batzuk igarota basoak hartzen du bere lekua. Agian denok ikusi dugun edo ikusteko aukera izango dugun zerbait.



PAGADIA ETA URKIDIAREN FLORA URKIOLAKO PARKE NATURALEAN

Pagadia, gehienbat pagoz osatutakoa, hedadura handi-
dieneke basoa da Urkiolako Natur Parkean (Parkearen aza-
leraren ia %20-a). Pagoa zuhaitz hostoerorkorra da, mendialdeko klima heze eta hotzetan ondo hazten dena. Urkiola hain leku euritsu eta lai-
notsua izanik leku ezin hobea aurkitzen du hazteko, pagadi zabalak eratuz estai mendita-
rrean.

Pago hostoen ezarpen hori-
zontala dela eta, argi izpi gutxi dira udaberrian eta udan oihan-
pera iristen direnak, ingurune itzaltsua sortuz. Argiaren gabe-
ziak landare askoren hazkundera galarazten duenez, gehienetan ia landareri aurkituko dugu orbelaz betetako pagoen azpialdea. Itzal horretatik ihesi, hainbat landarek, lilipa eta Erythronium dens-canis horien artean, pagoen hostoak atera aurretik loratzen dira, oraindik negua amaitu gabe dagoenean. Pagadietako landare bereizgarriak dira besteak beste, Deschampsia flexuosa gramineoa, ahabia baso-anemonea eta garatxo-belarra. Mendi hauetan bi pagadi mota bereiz daitezke, kareharrien gainean hasten dena bata eta lurzoru silizeoetakoa bestea, bakoitza bere landare bereizgarriekin.

Pagoarekin batera beste zuhaitz eta zuhaixka batzuk aurki daitezke, hala nola, urkia, otsalizarra, hostazuria eta goros-



tia. Urkia zuhaitz kolonizatzailea da eta zuhaiztiak sortzen ditu pagadietako soiluneetan eta abandonaturiko lursaile-tan, sarritan pagoekin tartekatuta, Txupitaspeko urkidian bezala.

Pagadiak oso ustiatuak izan ziren aurreko mendeetan eta tarteka zuhaitz zahar lepatu batzuk geratzen diren arren, Urkiolako pagadi gehienak oso gazteak dira, 100 urte baino gutxiagokoak. Parkeko pagadi zabalak Saibin, Urkiolagirren, Eskuagatzeko mendi multzoan eta Arangioko mendizerran aurkituko ditugu. Aipagarria da gai-nera, inguru hauetako pagadirik handiena delako, Parkearekin hegoaldetik muga egiten duen Kondebasoko basoa.

PAGOA (*Fagus sylvatica*)

DESKRIBAPENA: adaburu biribildua duen zuhaitz hos-toerorkorra, 30 metro arte haz daitekeena. Bere enborra-
ren azala grisa eta leuna da. Hostoek itxura lantzeolatua dute eta ertza zertxobait ondulatua. Udazkenaren hasie-
ran pagatxa izeneko fruitua ematen du. Pagatxak binaka agertu ohi dira eta arantza bigunez inguratutako kupula batez estalita daude

LORALDIA: maiatzetik ekainera.

HABITATA: 500-600 metrotik gorako mendi hegalek eta tontorrak

BANAKETA: Europako erdialdea eta mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz oso arrunta da eta mendi gehienetan ageri da barreiatuta, baso zabalak era-tuz. Azpimarratzekoak dira Saibi, Urkiolagirre, Orixol, Eskuagatz eta Kondebasoko pagadiak.

OHARRAK: Antzina, pagoaren egurra oso erabilia izan zen egur ikatza egiteko. Pagoei enbor nagusia hiru bat



metrora inauten zitzaien eta horren ondorioz Urkiolako pagoak motzak dira, Euskal Herriko beste mendi askota-koak bezala.

URKIA (*Betula alba*)

DESKRIBAPENA: zuhaitz hostoerorkorra, 20 metroko altuera izan dezakeena eta kono edo piramide itxura-duna. Enborraren azala zurixka da eta marra txiki horizontalak ditu. Hostoek hiruki edo erronbo itxura dute eta ertza zerraduna. Bere fruitu txiki hegaldunak galburu esekietan garatzen dira.

LORALDIA: maiatzetik ekainera.

HABITATA: pagadietako soiluneak eta txilardiak, sarritan mendi hegal hezeetan.

BANAKETA: boreala, Europa eta Asia zati bateko alde hotz eta heze gehienetan. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz arrunta da; zuhaitzak eratzen ditu, Saibi eta Urkiolagirreko mendi hegaletan bereziki.

OHARRAK: parkeari izena ematen dion zuhaitza da



(urkia izenetik dator Urkiola). Urkia, zuhaitz kolonizatzailea da eta pagadiaren finkapenerako baldintza mesedegarriak sortzen ditu.

HOSTAZURIA (*Sorbus aria*)

DESKRIBAPENA: 5-15 metroko zuhaitz txikia, azal grisa eta leuna duena. Bere hostoak obalatuak edo eliptikoak dira eta ertz zerraduna dute. Bereizgarria da hostoaren azpialde zurixka edo zilar kolorekoa. Korinboetan bildutako lore ziriei, fruitu gorri-laranja biribilduak ematen dituzte.

LORALDIA: apirilatik ekainera.

HABITATA: pagadiak eta beraien ordeztako komunitateak, harkaitzetan batez



ere.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz urria da; harkaitzen gaineko pagadietan aurki daiteke, Orixolen, Aramotzen eta Eskuagatzen adibidez.

OHARRAK: hostoen azpialde zuriari esker urrunetik bereiz daitekeen zuhaitza da. Bere fruituak espektorante gisa erabili ohi dira.

GOROSTIA (*Ilex aquifolium*)

DESKRIBAPENA: zuhaixka hostoiraunkorra, 5 metrotik beherakoa gehienetan. Bere adarrek eta arantzadun hosto distiratsuek itxura trinkoa ematen diote. Urrian heldu egiten dira bere baia gorri ikusgarriak eta zuhaixkan mantentzen dira hurrengo hilabeteetan. Gorosti arak eta emeak daude eta azken hauek dira fruitua ematen dutenak.

LORALDIA: apirilatik ekainera.

HABITATA: baso hezeak eta sastrakadiak.

BANAKETA: Europako hegoaldea eta mendebaldea, mendialdeetan bereziki. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka urria da; gorosti ederrak ikus daitezke Toki Alai interpretazio zentroetik Aldazitalako aisialdi gunera doan bidean.

OHARRAK: gorostiaren baiak ezinbesteko elikagai iturri dira neguan animalia askorentzat. Gorostia urritu egin



zen duela urte batzuk oso erabilia izan zelako Gabonetako apaingarri modura. Espezie babestua da eta "Interes Berezikoa" kategorian sartuta dago "Euskal Autonomi Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan".

OTSALIZARRA (*Sorbus aucuparia*)

DESKRIBAPENA: 8-15 metroko zuhaitz hostoerorkorra (gehienetan ez ditu 10 metroak gainditzen), enbor azal gris eta leunduna. Hosto konposatuak ditu, 5-8 foliolo parez osatuak eta muturrean. Folioloak luzangak dira eta ertz zerraduna dute. Loreak, txikiak eta zuriak, multzoetan agertzen dira adarren bukaeran eta ondoren fruitu gorri-laranja biribildua ematen dute.

LORALDIA: maiatzetik ekainera.

HABITATA: pagadietako soiluneak, gandorrek eta leku harritsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa eta Asia iparraldea eta mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz urria da, baina nahiko ondo sakabanatuta ageri da lurralde osoan; pagadi gehienetan aurki daiteke eta Saibiko



bidea hasten den lekuan (Toki Alai alboan) inguru honetako otsalizar handienetako bat beha daiteke.

OHARRAK: bere fruituak, C bitaminan joriak, jangarriak dira ezaugarri idorgarriak eta ezaugarri idorgarriak eta antieskorbutikoak dituzte.

GARATXO-BELARRA (*Daphne laureola*)

DESKRIBAPENA: mulu hostoiraunkorra 1 metro artekoa, zurtain tenteak eta gutxi adarkatuak dituen. Hosto distiratsuek ditu, obobatu-lantzeolatuak eta larrukarak. Luku eran hazten diren lore hori-berdexkak ditu, tutu itxuradunak. Fruitua, baia beltza da heldua dagonean.

LORALDIA: otsailetik maiatzera.

HABITATA: pagadiak, haltzadiak eta lenarrak

BANAKETA: Europako hegoaldera eta mendebaldea, Afrikako iritsiz. Urkiolako Natur Parkean arrunta da; pagadi zein haltzadi gehienetan aurki daiteke.

OHARRAK: landare pozoitsua da. oso antzekoak diren bi subespezie daude, Daphne laureola subsp. laureola eta Daphne laureola subsp. philippi. Lehenengoaren



hipantoa 5-9 mm-koa da luzeran eta bigarrenarena 5 mm baino txikiagoa.

AHABIA (*Vaccinium myrtillus*)

DESKRIBAPENA: mulu hostoerorkorra, 15-60 zentimetrokoa eta oso adarkatua. Berdea da eta adar angelutsuak ditu, hosto obalatuak estaliak. Kopa itxurako loreak, berdeskak eta arrosaz tindatuak, txikiak eta dilindariak dira. Fruitua baia biribildua da, kolorez beltz-urdinxka.

LORALDIA: apirilatik ekainera.

HABITATA: pagadiak eta bere ordezkapen komunitateak.

BANAKETA: boreo-alpetarra. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz aurki daiteke Saibi, urkiolagirre eta Andastoko pagadietan.

OHARRAK: bere fruitua jangarria da eta zapo-ore onekoa, konfiturak egiteko aproposa.



GIBEL-BELARRA (*Hepatica nobilis*)

DESKRIBAPENA: landare txikia, 15 zentimetro arte haz daitekeena eta berdinak diren hiru lobuldun hosto iraunkor eta larrukarak dituen. Lore bakar-tiak ditu zurtoinaren amaieran, zuriak, urdinak, bioletak edo arrosak izan daitezkeenak.

LORALDIA: matxotik maiatzera.

HABITATA: basoak eta itzaletan dauden kareharrizko harkaiztiak.

BANAKETA: zirkunboreala. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz ikus daiteke udaberriaren hasieran Eskuagatz, Ipizte eta Orixoleko pagadietan.



OHARRAK: hosto freskoak bronkitisa eta faringearen gaitzen kontrako tintura bat egiteko erabli daitezke.

HARRAUSTIA (*Saxifraga hirsuta*)

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea, peziolo luzedun eta orri biribildun hosto iletsuak dituen, zertxobait gorrixkak azpialdetik. Hostoek errosetak eratzen dituzte. Loreak, txikiak eta zuriak, pedunkulu luze baten bukaeran hazten dira.

LORALDIA: maiatzetik ekainera.

HABITATA: pagadiak eta baso hezeak.

BANAKETA: Europako isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz topa daiteke edozein pagadi zein erreka bazterretako basoetan.

OHARRAK: bere hostoak iletsuak dira eta hortik datorkio hain zuzen izen zientifikoa ageri den "*hirsuta*"



hitza, iletsua esan nahi duena.

BASA AZAFRANA (*Crocus nudiflorus*)

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landare erraboilakara. Bere hostoak, luze eta estuak, loraldiaren ostean agertzen dira, neguaren amaieran. Lore handi bakartia du, hodi itxurako beheko aldean eta kolorez lila-purpura. Nabarmenak dira lorearen barrualdean, laranja koloreko estigmak eta anterak.

LORALDIA: irailetik urrira.

HABITATA: pagadiak, baso soiluneak eta mendi larreak.

BANAKETA: Europako hego-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz ikus daiteke Urkiolako mendateko pagadi eta larretan.

OHARRAK: udazkenean loratzen diren landaren arteko



lore ikusgarrienetakoa du.

LILIPA (*Narcissus pseudonarcissus*)

DESKRIBAPENA: hosto berde-urdin estu eta luzeak dituen 20-25 zentimetroko landare erraboilakara. Hostoek batzuetan 2 gila nabari dituzte azpialdean. Lore bakarra ematen du, handia, kolorez horia eta zintzilikaria.

LORALDIA: otsailetik apirilera.

HABITATA: pagadiak, urkidiak eta larre hezeak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula iparraldeko endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da, baina agertzen deneko lekuetan ugaria izan daiteke. Lilipa hau behatzeko leku ezin hobeak dira Amilla eta Urkiolako mendatearen inguruko basoak.

OHARRAK: landare hau neguaren amaieran loratzen da, basoa oraindik lotan dagonean. Tapiz koloretsua sortzen du lurzorua gainean, sarritan argia bilatuz



elurraren artean. Talde hau oso aldakorra da, landare batzuk Narcissus vardulensis espeziekoak izan daitezkeen bitartean, besteak Narcissus pallidiflorus-ekoak izan daitezke.

ERYTHRONIUM DENS-CANIS

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea, oinaldetik hurbil bi hosto oposatu dituen. Hostoak eliptiko-lantzeolatuak dira eta orban arre-gorrixkak dituzte. Loreak bakartiak dira, kolorez arrosak, sarritan behera begira egon ohi dira eta petaloak atzerantz kurbatuak izan ohi dituzte.

LORALDIA: otsailetik apirilera.

HABITATA: pagadiak, harizkiak eta sastrakadiak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz aurki daiteke Urkiolako mendatearen inguruko pagadietan eta Aldazitalako baso birlan-daketan.

OHARRAK: landare honek loraldi goiztiarra du eta lilipa-



rekin batera, pagadietako orbelaren gainean tapiz koloretsu ikusgarria sortzen du negu amaieran.

SCILLA LILIO-HYACINTHUS

DESKRIBAPENA: 15-45 zentimetroko landare erraboilakara, hosto luze eta zabal ugari dituen oinaldean, kolorez berde distiratsuak. Loreak lilak edo urdinxkak dira eta itxura koniko edo obalatudun lore mordo lasaietan ageri dira.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: pagadiak eta erreka bazterretako baso hezeak.

BANAKETA: Europako hego-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Saibi eta Urkiolagirreko pagadietan aurki daiteke.

OHARRAK: erraboila lodia du, horixka eta ezkata mamitsuz inguratua



BASOETAKO MINGOTSA (*Oxalis acetosella*)

DESKRIBAPENA: 5-15 zentimetroko landare txiki herrestaria. Hostoak errosetan hazten dira eta hiru foliolo dituzte, hirustaren hostoen antzera. Loreak zuriak dira eta pedunkulu luzedunak, bakartiak eta ildaska arrosekin.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: pagadiak eta baso hezeak.

BANAKETA: zirkunboreala. Urkiolako mendatearen inguruko pagadietan ikus daiteke.

OHARRAK: larruazaleko gaixotasunak sendatzeko erabili izan da.



BASO-ANEMONEA (*Anemone nemorosa*)

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea. Loredun zurtoin tenteak ditu eta zurtoinaren bi herenera hiru hosto palmatu ageri dira. Lore bakarra ematen du, kolorez zuria eta batzuetan zertxobait arrosa, estamine hori askorekin.

LORALDIA: otsailetik maiatzera.

HABITATA: baso eta larre itzaltsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa, bereziki mendialdeetan. Urkiolako Natur Parkean landare urria da, baina pagadi batzuetan baso-anemoneen talde handiak aurki daiteke, Aldazitalan bezala.



OHARRAK: bere izen zientifikoa (*nemorosa*) basoetan hazteko duen joeratik datorkio.

BASO MISTOA ETA AMEZTIAREN LANDARETZA URKIOLAKO PARKE NATURALEAN

Parkeko baso mistoak lurzorua elikagaietan aberatsa den lekuetan agertzen dira, estai muinotarrean gehienetan. Baso hauetan haritz kanduduna da zuhaitz bereizgarriena, batzuetan haritzia eratuz, baina gehienetan beste zuhaitz eta zuhaixka askorekin agertu ohi da tartekatua, hala nola, lizarra, astigar arrunta, ezki hostozabala, urkia, gaztainondoa, hurritza eta zumalakarra. Baso mistoa eta haritzia, Urkiolako zuhaitz dibertsitate handieneko basoak dira, baina azalera txikikoak izateaz dira, baina azalera txikikoak izateaz gain (Parkearen azaleraren %1-a baino gutxiago), oso urriak dira.

Parkean hegoaldeko magaletako basoetan, haritz kandudunarekin batera, haritz kandugabea eta ametza ageri dira. Ametza harearrien gaineko lurzoru lehorragoetan hazi ohi da, ameztia eratuz. Sarritan pagoarekin tartekatuta ageri da estai menditarra eta muinotarraren arteko mugan. Baso mistoaren garapenerako leku ezin hobeak dira haran



hondoak eta mendi hegaletako beheko aldeak, baina gaur egun, haien orde z kanpoko zuhaitzen landaketek, sastrakadiak, aziendarentzako larreek dituzte basoen berezko lekuak.

Baso mistoaren oihanpea oso aberatsa da zuhaixka, landare igokari eta landare belarkaretan, basoari oihan itxi baten itxura emanez. Baso hauetako landare bereizgarriak dira besteak beste, orrazi iratzea, basoetako atxaparra, apomahatsa, huntza eta laharra.

Baso misto aipagarrienak Saibiko ipar magalaren beheko aldekoa, Gaztaietako, Olaetxe-Intxaurraldekoa, Amillakoa eta Axbizkar-Arranatzekoa dira. Ez dugu ahaztu behar ere, Parketik hurbil dagoen Kondebasoko basoan inguru hauetako amezti zabalena dagoela.



HARITZ KANDUDUNA (*Quercus robur*)

DESKRIBAPENA: 15-40 zentimetroko zuhaitz hostoerorkorra, sendoa, adaburu zabal eta biribilduna. Enborrak azal lodi eta zartatua du, kolorez gris-marroia. Hosto lobulatuak ditu, oinaldean aurikuladunak. Lore arrak eta emeak zintzilikariak dira eta bere fruitua pedunkulu luze batetik esekita dagoen ezkurra da.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: basoak eratzen ditu haran hondoetan eta lurzoru heze eta sakoneko mendi hegaletan.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz arrunta da; Saibiko ipar magalaren beheko aldean, Gatzaietan eta Intxaurralden aurki daiteke baso mistoa eratuz. Urkiolako mendatearen inguruan ere, zuhaitz ederrak ikus daitezke.

OHARRAK: haritz kandugabearekin (*Quercus petraea*) nahas daiteke, baina honek ez dauka aurikularik hostoen oinaldean eta ezkurak edo ez dauka pedunku-



lurik edo oso laburra da. Haritza zuhaitz sakratua da eta garrantzi handikoa euskal kulturean.

AMETZA (*Quercus pyrenaica*)

DESKRIBAPENA: zuhaitz hostoerorkorra 20 metro arte haz daitekeena. Enbor azal lodi eta zartatua du, kolorez marroi-grisa. Hostoak haritzaren antzekoak dira, baina lobulu nabariagoekin; gainera iletxo zurixkaz estalita daude, nabariagoak hostoaren azpialdean. Bere fruitua, ezkurra, udazkenean zehar heltzen da.

LORALDIA: maiatzetik ekainera.

HABITATA: lurzoru hareatsuen gaineko basoak, ugariagoa eguteratan.

BANAKETA: Iberiar Penintsula, Frantziako hego-mendebaldea eta Marokoko ipar-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz arrunta da; zuhaitziak eratzen ditu haritz eta pagoekin tartekatuta Saibiko ipar magalean eta Kondebasoan.



OHARRAK: ametza, zuhaitz ipurditik erraz sortzen da berriro eta sarritan, zuhaixka itxurako ametzen zuhaitziak sortzen ditu.

HUNTZA (*Hedera helix*)

DESKRIBAPENA: 5-25 zentimetroko landare igokaria, lurrean etzanda zabaldu daitekeena edo zuhaitz enborrei eta hormei itsatsita gorantz haz daitekeena. Bi motatako hosto larrukara eta distiratsuak ditu; adar antzuetan lobulatuak eta berde ilunak, loredun adarretan aldiz eliptikoak eta argiagoak. Loreak oso txikiak dira eta unbelatan gartzen dira. Fruitua baia beltz bat da, hurrengo udaberrian heldu egiten dena.

LORALDIA: abuztutik urrira.

HABITATA: baso hezeak, haltzadiak, harkaiztiak eta hormak.

BANAKETA: Europa, Asia eta Afrikako iparraldea. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; ia edo-



zein basotan eta harkaizti askotan aurki daiteke, bereziki kobazuloetako sarreraren inguruan.

OHARRAK: bere fruitua toxikoa da. Erleek loreetako nektarra hartzen dute ezti egiteko.

HURRITZA (*Corylus avellana*)

DESKRIBAPENA: 2-5 metroko zuhaixka hostoerorkorra, oinarritik irteten diren adar malgu ugari dituenak. Hosto biribildu handiak ditu, ertza bi aldiz zerraduna dutenak. Loreak neguan agertzen dira, hostoen aurretik, arrak gerba esekietan eta emeak adaxketan, ia ikusezinak. Fruitua, hurra, oboidea da eta oso gogorra.

LORALDIA: urtariletik martxora.

HABITATA: baso mistoak, erreka bazterretako basoak, hesi biziak eta lenarretako sakonune hezeak.

BANAKETA: ia Europa osoa eta Asiako mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; eta aurkitzeko erraza, Txakurzuloko pistaren alboko basoe-



tan eta Aldazitalan esaterako.

OHARRAK: hurrak jangarriak eta oso elikagarriak dira. Bere adarrak makilak egiteko eta otzaragintzan erabiltzen dira.

BASOETAKO ATXAPARRA (*Lonicera periclymenum*)

DESKRIBAPENA: 1-10 metroko zuhaixka hostoerorkor igokaria. Itxura eliptikodun hosto oposatuak ditu, eseriak edo peziolo txikidunak. Loreak handiak eta usaintsuak dira, tutu luzea dute eta kapitulu trinkoetan bilduta daude; kolorez zuri-horixkak, sarritan gorrix tintatuak.

LORALDIA: ekainetik uztaiera.

HABITATA: baso ezberdinak, sastrakadiak eta hesi biziak.

BANAKETA: ia Europa osoa eta Afrikako iparraldea. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; Intxaurraldeko basoetan eta Toki Alai Interpretazio Zentroaren inguruko hesi biziaren inguruan ikus daiteke.



OHARRAK: atxaparra oso ezaguna da bere loreek duten usain ona dela eta; usain horrek intsektu polinizatzaileak erakartzen ditu loreetara.

INTSUSA BELTZA (*Sambucus nigra*)

DESKRIBAPENA: 2-7 metroko zuhaitz edo zuhaixka hostoerorkorra, adaburu biribildu eta trinkoduna. Kortxo erako enbor azal zartatua du, kolorez arre-grisa. berdea hasieran. Hosto konposatuak ditu, itxura lantzeoladun 5-7 folioloz osatuak. Loreak zuriak eta usaintsuak dira eta unbelak sortzen dituzte. Fruitua baia beltz txikia da.

LORALDIA: ekainetik uztaiera.

HABITATA: baso freskoak, hesi biziak eta sastrakadiak.

BANAKETA: Europa, Asia eta Afrikako iparraldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka oso arrunta da; haran hondoetan ageri da bereziki, Atxarten eta Mañaria inguruan esate baterako.

OHARRAK: herri medikuntzan oso erabilia izan den zuhaixka da; fruituak eta zurtoinen barneko azala laxante modura eta loreak diuretiko modura. Azalarekin krema



orbaintzaileak prestatzen dira. Fruituak artilea kolore urdinez edo bioletaz tindatzeko erabil daitezke.

BASAERRAMUA (*Euonymus europaeus*)

DESKRIBAPENA: 2-5 metroko zuhaixka hostoerorkorra, oso adarkatua oinaldetik bertatik. Hosto oposatuak ditu, eliptiko-lantzeolatuak. Loreak zuri-berdexkak dira eta fruitua baia deigarria bat da, kolorez gorri biziak eta bonete itxuraduna.

LORALDIA: maiatzetik ekainera.

HABITATA: baso freskoetako soiluneak zein bazterrak eta haltzadiak.

BANAKETA: ia Europa eta Asia osoak. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka urria da; Mañaria inguruko baso mistoetako bazterretan ikus daiteke.

OHARRAK: landare osoa toxikoa da, fruituak bereziki. Fruituen azal mamitsua larruak tindatzeko erabil daite-



ke. Gaztelaniazko izena (bonetero) fruituek duten itxuratik datorkio.

ZUHANDORRA (*Cornus sanguinea*)

DESKRIBAPENA: 2-5 metroko zuhaixka hostoiraunkorra, adar gorrixkak dituenak. Hosto oposatuak ditu, eliptikoak eta nerbio oso nabariekin, gorrituz doazenak udazken aldera. Lore txiki zuriak ditu unbelatan bilduta. Fruitua baia txiki beltz bat da.

LORALDIA: zuhandorra.

HABITATA: baso bazterrak eta hesi biziak, lurzoru freskoetan.

BANAKETA: ia Europa eta Asia osoak. Urkiola Natur Parkean zuhaixka oso arrunta da; erraz ikus daiteke Urkuleta eta Intxaurralde inguruko basoetan.

OHARRAK: fruituak idorgarriak dira. Bere egurra oso erabilia izan da lanabesen kirtanak egiteko.



OTONDO-BELARRA (*Stachys officinalis*)

DESKRIBAPENA: 15-60 zentimetroko landarea. Zurtoinak lau alde ditu. Hostoak luzangak dira, oinaldean bihotz itxuradunak, horztunak eta gehienak errosetan kokatuta. Loreak bertiziloetan ageri dira, galburu trinkoak eratuz, kolorez purpurak.

LORALDIA: uztailetik urrira.

HABITATA: baso ezberdinak eta belardien bazterrak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da eta hainbat tokitan aurki daiteke.

OHARRAK: zapore atsegina ematen duenez,



landare hau tearen ordezkotzat har daiteke.

UDABERRI LOREA (*Primula acaulis*)

DESKRIBAPENA: 5-20 zentimetroko landare txiki iletsua, oinaldeko hostoen erroseta duena. Hostoen nerbioak oso nabariak dira. Lore horiak ditu, bost orban laranja oinarrian eta bakartiak pedunkulu baten bukaran.

LORALDIA: otsailetik apirilera.

HABITATA: baso mistoak, larreak eta ezponda hezeak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; haran hondoetako baso mistoetan aurki daiteke.

OHARRAK: parkean dauden genero bereko beste bi espezieetatik erraz desberdindu daiteke landare ipurditik hazten diren lore bakartiak dituelako, beste bi espezieen (*Primula elatior* eta *primula veris* subsp. *colum-*



nae) loreak unbelatan bilduta dauden bitartean.

MARRUBIA (*Fragaria vesca*)

DESKRIBAPENA: estoloi luzedun 5-30 zentimetroko landarea, oinaldean hostoak dituena erroseta eratzen. Hostoak trifoliatuak dira eta folioloak obalatuak eta ertz zerradunekoak. Lore txiki zuriak ditu, heldutasunean marrubia txikiak ematen dituztenak, gorri distiratsuak eta jangarriak.

LORALDIA: apiriletik uztaileira.

HABITATA: baso bazterrek eta soiluneak, baita ere leku fresko eta itzaltsuak ezponda eta bide bazterretan.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Mañaria inguruko mendi bide askoren bazterretan aurki daiteke.

OHARRAK: basa marrubiak dastatu nahi ezker, aukera paregabea da Mañariatik Urkiolara igotzea "Bidexka liluragarritik" San Antonio egunean (ekainaren 13an).



APOMAHATSA (*Tamus communis*)

DESKRIBAPENA: 1-5 metroko landare igokari dioikoa. Bihotz itxuradun hosto handi distiratsu txandakatuak ditu, peziolo luzedunak. Loreak, kolorez berde-horixkak, mordoetan bilduta daude, arrak eta emeak landare ezberdinetan. Fruitua mordoetan zintzilik ageri den baia gorria da, horixka batzuetan.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: hariztiak, baso mistoak, haltzadiak, artadiak eta hesi biziak.

BANAKETA: eskualde mediterraneo. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Urkuleta inguruko basoetan ikus daiteke.

OHARRAK: bere fruitua toxikoa da. Banaketa tropikal eta subtropikaleko familia baten kide izanik, lpar



Hemisferioan bizi den dioskoreazeo bakarrenetakoa da.

MELIRA (*Iris foetidissima*)

DESKRIBAPENA: 30-80 zentimetroko landare erraboi-lakara, kiratsa botatzen duena igurzterakoan. Hosto iraunkorrak ditu oinaldean, luzeak eta distiratsuak. Zurtoinetik 1-5 lore handi ateratzen dira, kolorez bioletak eta tonu horixkadunak. Haziak kolorez gorri-laranja biziak dira.

LORALDIA: maiatzetik uztaileira.

HABITATA: hariztiak, baso mistoak, hesi biziak eta erreka bazterrak.

BANAKETA: Europako hegoaldea eta mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; populazio bakarra ezagutzen da Mañaria heritik hurbil.

OHARRAK: landare toxikoa da eta bere izen zientifikoa (foetidissima) igurzterakoan botatzen duen kiratsetik




datorkio.

ARTADIETAKO LANDARETZA URKIOLAKO PARKE NATURALEAN

Bertako basoen artean artadia da Parkeko bigarren azalera handiena duen basoa (8Parkearen azaleraren %6-a). Baso honetan, bertoko beste basoetan ez bezala, zuhaitz hostoiraunkor bat da nagusi; artea.

Artadia, baldintza lehorretan ondo garatzen den baso mota izanik, hedatuagoa dago klima mediterraneo lurrean euritsuetan baino. Artadia Durangaldeko mendietan hain zabalduta egotea bi arrazoi nagusiren ondorio da ziurrenik. Batetik, izotz aroaren osteko klima aldi batean baldintza klimatikoak egungoak baino epelagoak eta lehorragoak izan omen ziren. Aldi hartan, landaredi mediterraneoak Ebro ibaiaren gora egin omen zuen eta Iberiar Penintsularen iparraldean heda-



tu. Bestetik, kontutan izan behar dugu egungo klima euritsua den arren, arteak 300-800 metro bitartean dauden kareharritzko ingurune harritsuetan leku ezin hobe duela hazteko, bertan lurzorua oso lehorra delako eta beste zuhaitz lehiakiderik ez duelako. Artearekin batera, baso itxi eta trinkoa eratzen dute hainbat zuhaitz eta zuhaixka hostoiraunkorrek, hala nola, gurbitz, ereinotza, txorbeltza eta gartxu hostozabala. Landare belarkaren artean aipagarriak dira orkideo berezi batzuk, hala nola, *Epipactis parviflora*, *Epipactis microphylla* eta *Limodorum abortivum*. Antzina asko ustiatu zen artearen egurra eta horren ondorioz ia erabat desagertu egin ziren hainbat tokitan. gaur egun Parkean dauden artadi gehienak gazteak dira eta artadi handienak Dimako Artaun auzoaren gainaldean, Axbizkaren, Eskuagatzen eta Mugarran aurki daitezke. Kontserbazioaren ikuspegitik artadia garrantzi handiko basoa da flora eta fauna dibertsoaren gordeleku delako.



ARTEA (*Quercus ilex*)

DESKRIBAPENA: Adaburu zabal eta biribildua duen zuhaitza, 20 metro arte haz daitekeena. Enborra, azal gris ilun zartatuaz estalia du. Hosto gogorrak ditu, obalatuak eta kolorez berde biziak, zurixkak azpialdetik. Bere fruitua, ezkurra, urria eta azaroa bitartean heldu egiten da.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: mendi hegalean dagoen artadia. **OHARRAK:** artearen ezkurra elikagai garrantzitsua da basurde eta beste animalia askoren elikaduran.



mendi hegalean dagoen artadia.

OHARRAK: artearen ezkurra elikagai garrantzitsua da basurde eta beste animalia askoren elikaduran.

GURBITZA (*Arbutus unedo*)

DESKRIBAPENA: 6 metroko altuera gainditu ohi ez duen zuhaixka hostoiraunkorra. Enborraren azal gorrixka zerrenda luzeetan askatzen da. Hostoak nahiko gogorrak dira, luzangak eta ertz zerradunekoak. Bere fruitua baia biribildu bat da, kolorez gorria edo laranja.

LORALDIA: irailetik urtarrilera.

HABITATA: artadietako soiluneak eta bazterrak

BANAKETA: Mediterraneo arroko herrialdeak eta Europako mendebaldeak. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka urria da; Mañaria herria inguratzen duten mendietako artadietan topa daiteke 8Eskuagatzen, Untzillatzen, Axbizkaren eta Mugarran).

OHARRAK: bere fruitua jangarria da, baina gehiegi jan



ezkero mozorkeria eragiten du, Fruitua, alkoholdun edariak eta konfiturak prestatzeko erabil daiteke.

EREINOTZA (*Laurus nobilis*)

DESKRIBAPENA: 5-10 metroko zuhaitz txiki hostoiraunkorra. Bere enborraren azala gris iluna eta leuna da. Hostoak larrukarak eta lantzeolatuak dira, berde ilunak eta zertxobait distiratsuak. Lore arrak eta emeak ditu eta azken hauek oliba txiki baten antzeko fruitua ematen dute, beltza heldutasunean.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: artadiak eta batzuetan baserrien alboan landatuta.

BANAKETA: Europako mendebaldeak eta hegoaldeak. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz urria da; Eskuagatz eta Artaun inguruko artadietan aurki daiteke.

OHARRAK: sarritan landatua izan den zuhaitza da, apaingarri gisa zein sukaldaritzan hain preziatuak



diren bere hostoak erabiltzeko, usain oso atsegina ematen dutenak.

ARBUSTU ARRUNTA (*Ligustrum vulgare*)

DESKRIBAPENA: 1-5 metroko zuhaixka hostoerorkorra edo ia iraunkorra, oso adarkatua eta trinkoa. Hostoak oposatuak edo hiruko bertiziloetan ageri dira eta bioleta kolorez tindatuta negu osoa iraun dezakete adarretan, lantzeolatuak, distiratsuak eta zertxobait larrukarak dira. Lore zuri txikiak ditu panikuletan bilduta, baia beltz biribilduak ematen dituztenak.

LORALDIA: maiatzetik uztailean.

HABITATA: artadiak, hariztiak eta hesi biziak.

BANAKETA: eskualde mediterranea. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka urria da; Artaungo artadietan aurki daiteke.

OHARRAK: bere fruitua toxikoa da, baina tindagai bel-



tza eta urdina lortzeko erabil daiteke.

GARTXU HOSTOZABALA (*Phillyrea latifolia*)

DESKRIBAPENA: 1-5 metroko zuhaixka hostoiraunkorra. Enborraren azala grisa da. Hostoak era oposatuan hazten dira adarretan, lantzeolatuak dira eta kolorez berde distiratsuak; gazteek ertz zerraduna dute. Fruitu txiki mamitsu eta biribilduak ematen du udaren amaieran.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: artadiak eta leku harritsuetako sastrakadiak.

BANAKETA: Mediterraneo arroko herrialdeak. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka arrunta da; eskuagatz, Axbizkar, Mugarra eta Aramotzeko mendebaldeko artadietan ageri da.

OHARRAK: hostoak eta fruituak idorgarri modura eta ahoko ultzerak sendatzeko erabiltzen ziren.



TXORBELTZA (*Rhamnus alaternus*)

DESKRIBAPENA: zuhaixka hostoiraunkorra, 5 metro artekoa. Bere hostoak eliptikoak dira, gogorak eta berde ilun distiratsuak. Udaberrian lore berde-horixkak ematen ditu eta heldutasunean belztu egiten diren fruitu txiki eta biribildu gorriak garatze ditu.

LORALDIA: martxotik apirilera.

HABITATA: artadiak, ordezkapeneko komunitateak eta harkaiztiak.

BANAKETA: Mediterraneo arroa. Urkiolako Natur Parkean arrunta da; artearekin batera topa daiteke Eskuagatz, Untzillatz, Mugarra, Axbizkar eta Aramotzen.

OHARRAK: bere fruitua toxikoa da, baina urre koloreko



tindagaiak lortzeko erabil daiteke. Bere enborra, landareen ehunak tindatzeko erabil izan da ere.

OILARANA (*Prunus mahaleb*)

DESKRIBAPENA: sarritan etzanda ageri den 2-8 metroko zuhaixka hostoerorkorra. Oso adarkatua da eta bere egurra usaintsua da. Hostoak obalak dira, bihotz itxuradunak, finki horztunak eta kolorez berde argiak. Loreak zuriak dira eta hezurdun fruitu txiki bat ematen dute, beltzezka heldutasunean.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: artadiak eta leku harritsuak.

BANAKETA: eskualde mediterranea. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka bakana da; Aramotzeko artadietan eta Astxiki eta Alluitzeko harkaiztietan aurki daiteke.

OHARRAK: bere fruitua jangarria da baina zertxobait mingotsa eta mami gutxikoa.



OTXAR BASATIA (*Rubia peregrina*)

DESKRIBAPENA: 0,5-2 metroko landare iraunkor igokaria. Zurtoinak ebakidura laukiduna du eta oso latza da. Hostoak obalak dira, puntan amaituak eta 4-tik 6-rako bertiziloetan kokatuta. Loreak berde-horixkak dira eta baia beltz bat ematen dute.

LORALDIA: ekainetik irailera.

HABITATA: artadiak eta leku harritsuetako sastrakadiak.

BANAKETA: Europako mendebalde eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Eskuagatz, Axbizkar zein Mugarako artadietan.

OHARRAK: artadietako bereizgarria den landare hau erraz ezagutu daiteke oso latza izaterakoan jantzietan edo azalean itsatsi egiten delako.



ENDALAHARRA (*Smilax aspera*)

DESKRIBAPENA: 1-15 metroko luzera duen landare igokari hostoiraunkorra, zurtoin angelutsuak eta arantza-dunak dituena. Hostoek bihotz itxura dute, baina lobulu nabari eta arantza txikiz hornituta. Loreak berde-horixkak dira eta baia gorri edo beltza ematen dute.

LORALDIA: abuztutik urrira.

HABITATA: artadiak eta leku harritsuetako sastrakadiak.

BANAKETA: Europako hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz ikus daiteke Artaun, Eskuagatz, Axbizkar edo Mugarako artadietan.

OHARRAK: zurtoin samurrak jangarriak dira esparragoen ordezeko modura eta bere fruituekin edari freskagarri bat presta daiteke. Kontu handia izan behar da fruitu pozoitsuak dituzten landareekin nahas daitekeelako.



HELIATHEMUM NUMMULARIUM

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landare herretaria edo tentea, oinaldea zurezkoa duena. Hostoak oposatuak dira, obalak, oblongoak edo lantzeolatuak eta azpialde tomentudunarekin. Estipulak lantzeolatuak dira eta hostoen pezioloa baino luzeagoak. Loreek mordo oso lasaia eraten dute, horiak dira gehienetan, baina arrosak ere izan daitezke.

LORALDIA: maiatzetik irailera.

HABITATA: artadi soiluneak, sastrakadi eta larre harritsuak eta harkaiztietako erlaitzak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarra eta Eskuagatzeko artadietan ikus daiteke.

OHARRAK: parkean bi subespezie aipatu dira, *Helianthemum nummularium* subsp. *nummularium* eta



Helianthemum nummularium subsp. *tormentosum*, baina oso zaila da biak desberdintzea landare honek aldakortasun handia erakusten duelako.

ERRATZA (*Ruscus aculeatus*)

DESKRIBAPENA: 20-80 zentimetroko zuhaixka txikia, zurtoin berde oso zurrunka dituena. Ez du historik eta hostoak diruditenak benetan zurtoinaren irtenune zapalak dira, itxura obal-lantzeolatudunak eta arantza batekin muturrean. Loreak txikiak eta berdexkak dira eta fruitua baia biribildu gorri bat da.

LORALDIA: abendutik maiatzera.

HABITATA: artadiak, bestelako basoak eta leku harritsuetako sastrakadiak.

BANAKETA: Europako mendebalde eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mañaria inguruko artadietan aurki daiteke sakabanatuta.

OHARRAK: zuhaixka honen adarrak oso zurrunka dire-



nez erratzak egiteko erabiltzen ziren, hortik datorkio euskarazko izena (erratza).

CEPHALANTHERA LONGIFOLIA

DESKRIBAPENA: 15-60 zentimetroko landare liraina, 8-10 hosto txandakatuak, estuki lantzeolatuak eta oso luzeak dituenak. Loreak kolorez zuri garbiak dira eta infloreszentzia luzanga lasaia eratzen dute. Sepaloak, obal-lantzeolatuak, aurrerantz zuzenduta daude eta muturrean orban horixka duen labeloa gainditzten dute.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: artadi harritsuak eta alboko sastrakadiak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; Mugarra eta Axbizkarreko artadietan agertzen da.

OHARRAK: Urkiolako Natur Parkea eta Enkartzioetako leku bat landare hau aurkitu direneko Bizkaiko leku bakarrak dira. Urkiolako artadietan beste




orkideo oso bakan batzuekin batera agertzen da (*Cephalanthera damasonium*, *Epipactis microphylla*, *Epipactis parviflora*, *Limodorum abortivum*).

EPIPACTIS MICROPHYLLA

DESKRIBAPENA: 15-55 zentimetroko landarea, zurtainaren gainaldea pubeszentea duena. 3-9 hosto obal-lantzeolatu ditu, adabetarteak baino laburragoak edo soilik apur bat luzeagoak direnak. Lore txiki pendularrak ditu, zertxobait bilotsuak, infloreszentzia lasai eta luze batean kokatuta. Sepaloak eta petaloak aurrera begira daude. Labeloa txikia da, zertxobait arrosa barrualdean eta berde-zurixka kanpoaldean.

LORALDIA: ekainetik abuztura.



HABITATA: artadi harritsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa Asiako hego-mendebalderaino. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; Mugarra eta Axbizkarreko artadietan agertzen da.

OHARRAK: Urkiolako Natur Parkea eta kostaldeko mendebaldeko landare hau aurkitu direneko Bizkaiko leku bakarrak dira. Urkiolako artadietan beste orkideo oso bakan batzuekin batera agertzen da (*Epipactis parviflora*, *Cephalanthera damasonium*, *Limodorum abortivum*).

EPIPACTIS PARVIFLORA

DESKRIBAPENA: 10-50 zentimetroko landarea, zurtainaren gainaldea pubeszentea duena. 3-9 hosto obal-lantzeolatu ditu, zurtainaren beheko aldean eta tonu biolazeoa izan ohi du. Loreak txikiak dira eta infloreszentzia lasai eta luze batean ageri dira. Sepaloak eta petaloak berde-horixkak dira. Labeloa arrea da barnealdean eta berde zurixka arrosaz orbandua kanpoaldean.

LORALDIA: maiatzetik uztailean.

HABITATA: artadi harritsuak.

BANAKETA: Iberiar Penintsulako endemikoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; Mugarrako artadietan agertzen da.

OHARRAK: Urkiolako Natur Parkea landare hau aurkitu deneko Bizkaiko leku bakarra da. Urkiolako artadietan beste orkideo oso bakan batzuekin batera agertzen da



(*Epipactis microphylla*, *Limodorum abortivum*).

URKIOLAKO PARKE NATURALEKO SASTRAKADIETAN AURKITZEN DEN FLORA

Sastrakadiak, sastrakaz eta zuhaixkez eraturako landare komunitateak dira eta Urkiolako Natur Parkean oso hedatuta daude. Giza jardueren ondorioz sortutako komunitateak dira gehienetan, basoak desagertu diren lekuetan sortutakoak batzuetan eta larreak abandonatzean agertutakoak bestetan. Sastrakadi ezberdinak daude eta komunitatean gailentzen den espeziearen arabera, itxura bat ala bestea hartzen dute. Horrela, txilar asko dagonean txilardia ageri da, otea nagusitzen denean otadia iratzeak daudenean iratzedia eta elorriak ugari direnean arantzadia, nahiz eta sarritan tartekatuta ager daitezkeen. Pagadietako soiluneetan eta bazterretan esate baterako, txilar zuriaren txilardia ikus daiteke. Txilar altu honek komunitate itxia eratzen du Saibi eta Urkiolagirreko ipar magaletan. Beherago dauden basoen



soilune eta bazterretan, hariztien inguruan alegia, sasiak topatzen du bere lekua, sasiz eta bestelako zuhaixkez osatuta.

Abandonatutako lareetan, iratze arrunta, otea eta hainbat txilar espezie ager daitezke batera. Lurzorua elikagaietan txiroa deneko lekuetan txilarrak izan ohi dira nagusi, lurzoru aberatsenetan aldiz otea. Komunitate hau, Saibin, Urkiolagirren Pagozelain eta Zabalanditik Tellamendirako mendilerroan ageri da.

Kareharrizko mendi hegal harritsu lehor eta eguzkiztatuetan, artadiaren eremuan bereziki, otaberaren sastrakadia ageri da, hala nola, Eskuagatx, Untzillatx eta Astxiki mendietan. Azkenik, Aramotzeko mendilerro harritsuan, elorri zurien eta elorri beltzen arantzadiak ageri dira, garrantzi handikoak basafaunaren elikaduran, bi zuhaixka horiek fruitu jangarriak ematen dituztelako.



ZURIKATXA (*Erica arborea* subsp. *riojana*)

DESKRIBAPENA: 1-4 metroko zuhaixka hostoiraunkorra, oso adarkatua. Hosto ugari ditu adarretan zehar, txikiak eta lerrokarak. Kanpaitxo itxuradun loreak txikiak eta zurixkak dira eta mordo trinkoak eratzen dituzte adarren muturrean.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: pagadietako soiluneak eta bazterrak.

BANAKETA: Iberiar mendietako endemikoa. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka urria da. Saibi, Urkiolagirre eta Kondebasoko pagadietako soilune eta bazterretan agertzen da.

OHARRAK: Saibiko ipar magalean txilardi trinko eta zeharkaezinak eratzen ditu. Leku baxuago eta epelagoetan oso antzekoa den beste



subespezie bat dago, *E. arborea* subsp. *arborea*.

OTEA (*Ulex galii*)

DESKRIBAPENA: 0,5-2 metroko zuhaixka oso arantzaduna eta adarkatua. Adar gazteak tomentudunak dira. Ez du hosto nabaririk. Loreak horiak dira eta beraien kaliza 9,5-11 milimetrokoa da; lorearen estandarteak 2 milimetro baino gehiagotan gaintitzen du kaliza. Brakteolek 1 milimetro baino zabalera txikiagoa dute. Fruitua leka biribildu txiki bat da.

LORALDIA: uztailetik abendura.

HABITATA: sastrakadian, sarritan txilarrekin eta iratzetarekin batera. Otadi trinko eta zabalak era ditzake.

BANAKETA: Europako isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka oso arrunta da; ia edozein sastrakaditan aurki daiteke.

OHARRAK: oso antzekoa den *Ulex europaeus* espe-



ziearekin nahas daiteke, baina azken honen brakteolek 1,5 mm edo gehiago neurtzen dute zabalera. Bi espezieak oso ugariak dira.

ELORRI ZURIA (*Crataegus monogyna*)

DESKRIBAPENA: 3-10 metroko zuhaixka edo zuhaitz txiki hostoerorkorra, oso adarkatuta eta arantza ugariz hornitua adarretan. Azala arre-grisaxka du. Hostoak espatula itxuradunak dira eta batzuetan sakonki zatikatuak, muturrean hoztunak. Lore ugari ematen dit korinboetan bilduta, kolorez zuriak edo zertxobait arrosak. Fruitua txikia eta biribildua da, kolorez gorria.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: hesi biziak, baso bazterrak eta soiluneak, sastrakadiak eta leku harritsuak.

BANAKETA: Europa, Asia eta Afrikako iparralde. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka arrunta da; aipagarriak dira Aramotzeko mendizerran dauden arantzadiak, aldarakoa horien artean.



OHARRAK: bere fruituekin, C bitaminan joriak, konfitura gozoa egin daiteke. Zuhaixka hau oso erabilia izan da medikuntza herrikoian. Baserrietan hesi biziak sortzeko landatzen da.

ELORRI BELTZA (*Prunus spinosa*)

DESKRIBAPENA: 4 metro arte haz daiteken zuhaixka hostoerorkorra, adartsua eta trinkoa. Adarrak oso ilunak ditu, grisaxkak zaharrenak. Hostoak lantzeolatuak edo obobatuak dira, ertzean finki krenatutak edo zerradunak. Petalo zuridun lore ugari ematen ditu hostoak irten aurretik. Fruitua drupa erakoa da, txikia eta biribildua, urdin-beltzezka eta pruinadura.

LORALDIA: martxotik biziak, baso bazterrak eta leku harritsuak.

HABITATA: hesi biziak, baso bazterrak eta leku harritsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa, Asiako mendebalde eta Afrikako iparralde. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka arrunta da; oso ugaria da Aramotzeko mendizerra harritsuan eta Mugarrako hegoaldeko hartxingadetan.



OHARRAK: bere fruitua anisetan beratuz, patxarana izeneko likorea egiten da. Fruitua bitamina iturri joria da, baina zapore garrantza du.

MAKATZA (*Pyrus cordata*)

DESKRIBAPENA: 15 metro arte haz daitekeen zuhaixka edo zuhaitz txiki hostoerorkorra. Arantzadun edo zuhaitz txiki hostoerorkorra. Arantzadun adarrak ditu eta bere hostoak txikiak eta eliptikoak dira, zertxobait biribilduak. Loreak zuriak dira. Udaren amaieran arre koloreko pedunkulu luzedun madari txiki bat ematen du.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: txilardiak, hesi biziak eta baso soiluneak eta bazterrak.

BANAKETA: ia Europa osoa, mendialdeetan bereziki. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka urria da; ale ederrak aurki daitezke Saibi eta Urkiolagirreko magaletan.

OHARRAK: bere euskal izena (makatza bertoko hainbat toponimoetan ageri da, Makatzeta baserrian esaterako,



makatzen lekua esan nahi duena. Madari txikiak jangarriak dira, baina oso mingotsak direnez jan aurretik helduta egoitea komeni da.

MIHURA (*Viscum album*)

DESKRIBAPENA: Kolore berdeko 20100 zentimetroko mulu hemibizkarroi oso adarkatua. Hostoak larrukarak dira, obobatu-luzangak eta oposatuak. Loreak txikiak eta horiak dira eta zima eserietan ageri dira. Sexu bakoitzeko loreak ditu. Fruitua baia zuri biribildua da, gardena eta batzuetan horixka.

LORALDIA: martxotik maiatzera.

HABITATA: errosazeoen familiako zuhaitz eta zuhaixken adarretan hazten den hemibizkarroia.

BANAKETA: Europako isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Aramotzeko elorri zuri askoren gainean ikus daiteke.

OHARRAK: bere fruitua pozoitsua da. Antzina bere fruitu-



tuak txorien ehizarako lika prestatzeko erabiltzen ziren. Mihura ezbeharren aurkako babesgarri gisa erabil izan da.

LAHARRA (*Rubus ulmifolius*)

DESKRIBAPENA: zurezko zepa duen 0,5-3 metroko zuhaixka. Turioiak indartsuak dira, sekzio pentamerodunak eta kanalikuludunak dira, sekzio pentamerodunak eta kanalikuludunak, oin zabaleko ezten sendoz beteak. Hostoak bost foliolodunak dira, gutxitan hiru edo lau foliolodunak, zuri tomentudunak azpialdetik eta obatu edo obobatu-luzangak. Infloreszentzia panikula zabala da eta loreak zuritik arrosara izan daitezke. Fruitua, masusta, gorrista da hasieran eta beltza heldutasunean.

LORALDIA: ekainetik abuztura.

HABITATA: sastrakadiak, baso bazterrak eta soiluneak eta bide bazterrak. Sasitza trinko eta zabalak eratzen ditu.

BANAKETA: Europako erdialdea eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka oso arrunta da; har-kaizti eta larreetan izan ezik ia edozein lekutan aurki dai-



teke.

OHARRAK: masustak jangarriak dira eta udaren amaieran dasta ditzakegu. Zapore gazi-gozoa dute eta gordinik, konfituran edo postrean jan daitezke.

LITHODORA PROSTRATA

DESKRIBAPENA: 10-60 zentimetroko landare herrestaria, oso adarkatua eta hosto txiki luzanga iletsuak dituena. Ukitzerakoan zertxobait itsaskorra da. Lore urdinak ditu, batzuetan purpura-biolazeoak eta lorearen ahoan ile txikiak ageri dira.

LORALDIA: martxotik ekainera.

HABITATA: otadiak, txilardiak eta baso soiluneak.

BANAKETA: Europako isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Aldazitala eta Elosuko otadietan aurki daiteke.

OHARRAK: *Lithodora prostrata* espeziearekin nahas daiteke, zeinetatik estamineen txertapen lekuaren arabera bereiz daitekeen. *Lithodora prostrata* estamineak korolaren barrualdean maila ezberdinetan txer-



tatzen dira. *Lithodora* diffusan aldiz maila berean.

KRABELINA (*Dianthus hyssopifolius*)

DESKRIBAPENA: 20-24 zentimetroko landare ahula eta gutxi adarkatua. Hostoak estuak eta luzangak dira. Loreak arrosak dira kolorez, zertxobait zurixkak batzuetan, nahiko handiak, usaintsuak eta nabariki zatikatutako petalodunak; banaka edo binaka hazten dira zurtoinaren muturrean.

LORALDIA: ekainetik irailera.

HABITATA: sastrakadiak, belardiak, baso soilune belartsuak eta harkaiztietako erlaitzak.

BANAKETA: Europako erdialdea eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Aramotzen eta Anboto ipar magalaren beheko aldean aurki daiteke.

OHARRAK: landare hau kostaldeko itsaslabarretan zein mendiko sastrakadietan ikus daiteke.



AINAR ARRUNTA (*Calluna vulgaris*)

DESKRIBAPENA: 10-150 zentimetroko mulua, urte osoan berde mantentzen dena, zepa zurezkua eta bihurria duena eta oso adarkatua. Hostoak ezkata modukoak dira, oposatuak eta zurtoinari estuki itsatsita; lau ilaratan kokatuta daude adarretan zehar. Lore txikiak ditu, kolorez arrosak edo zurixkak eta mordo luzangatan kokatuta.

LORALDIA: ekainetik urrira.

HABITATA: txilardiak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Saibi eta Urkiolagirreko txilardietan ikus daiteke beste ainar batzuekin batera.

OHARRAK: erleek ezti oso preziatua egiten dute



ainar arruntaren loreen nektarrarekin.

AINAR KANTAUARIARRA (*Daboecia cantabrica*)

DESKRIBAPENA: 20-70 zentimetroko mulua, zurtoin etzanak edo makurtuak dituena, zertxobait iletsuak gainaldean. Hostoak txikiak dira, zertxobait larrukarak eta lantzeolatuak; gainaldea berde iluna dute eta azpialdea zurixka. Loreak purpura-gorrixkak dira eta kupel itxuradunak, muturreko mordoetan kokatuta.

LORALDIA: maiatzetik irailera.

HABITATA: txilardiak eta otadiak.

BANAKETA: Europako isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Saibi eta Urkiolagirre magaletako sastrakadietan erraz ikus daiteke.

OHARRAK: sarritan intsektuek korolaren beheko aldea zulatu egiten dute lorearen barruko nektarra lortzeko.



AINAR PURPURA (*Erica cinerea*)

DESKRIBAPENA: 20-60 zentimetroko mulua, hiruko bertiziloetan hazten diren hosto txiki lerrokarak dituena. Loreak txikiak dira, kopa itxuradunak, kolorez purpura-gorrixkak eta mordo luzangak eratzen adarren muturrean.

LORALDIA: ekainetik irailera.

HABITATA: txilardiak, askotan lurzoru hareatsuen gainean.

BANAKETA: Europako isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Saibi, Urkiolagirre eta Tellamendiko txilardietan aurki daiteke.

OHARRAK: bere izen zientifikoak (cinerea) ile labur zurixkaz estalitako adarren itxura hauskara adierazten du.



AINAR BURUSOILA (*Erica vagans*)

DESKRIBAPENA: 20-80 zentimetroko mulua, hosto txiki lerrokarekin estalitako adar luzatu ugari dituena. Loreak arrosak edo zurixkak dira eta mordo luzanga trinkoetan ageri dira, gehienetan gorago hostoak dituztela. Loreen antera purpurak korolaren dituztela. Loreen antera purpurak korolaren gainetik nabarmentzen dira.

LORALDIA: uztailetik urrira.

HABITATA: txilardiak eta bestelako sastrakadik.

BANAKETA: Europako mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; ia sastrakadi guztietan ageri da.

OHARRAK: parkeko txilar ugariena da.



OTABERA ARRUNTA (*Genista hispanica subsp. occidentalis*)

DESKRIBAPENA: Kuxin itxurako 10-50 zentimetroko mulu oso adarkatua eta bilotsua. Adarrak arantzaz beteta ditu eta hostoak, itxuraz eliptikoak eta txikiak, soilik urteko adarretan ageri dira. Lore horiak ditu adarren muturrean bilduta. Fruitua 9-15 mm-ko leka eliptiko iletsu bat da.

LORALDIA: apiriletik uztaiera.

HABITATA: leku harritsuetako sastrakadiak eta har-kaiztiak.

BANAKETA: Europako hego-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Eskuagatx, Untzillatx eta Astxiki mendien magaletan aurki daiteke.

OHARRAK: batzuetan espezie bakarreko sastrakadi



oso trinkoak era ditzake, loraldian mendi batzuetako magalak horiz jantziz.

PRUNELA HASTIFOLIA

DESKRIBAPENA: 10-40 zentimetroko landarea, zurtoin tenteak eta iletsuak dituena. Hostoak oposatuak dira, obalak edo lantzeolatuak eta bi lobuludunak oinaldean, osoak edo horztunak. Ezpain biko lore handiak ditu, 20-30 mm-koak, kolorez purpura-biolazeoak eta tutu zurixkadunak, zurtoinaren muturreko burutxa trinkoetan hazten direnak.

LORALDIA: maiatzetik irailera.

HABITATA: sastrakadiak, belardiak eta baso hostoeror-korretako soiluneak.

BANAKETA: Europako hego-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Aldazitalako aisialdi gunearen inguruan aurki daiteke.

OHARRAK: erlearen moduko intsektu hegalariek polinizatutako landarea da.



POLYGALA VULGARIS

DESKRIBAPENA: 5-35 zentimetroko landarea, zertxobait etzana hasieran eta tentea ondoren. Hostoak txandakatuak dira, elipsoidalak behealdekoak eta lantzeolatuak edo lerrokarak gainaldekok. Loreak urdin-bioletak dira, batzuetan arrosak edo zurixkak eta mordo lorea-nitz lasaietan kokatua.

LORALDIA: apiriletik uztaiera.

HABITATA: txilardiak, otadi soilduak eta ezponda belartsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; sastrakadi askotan ageri da.

OHARRAK: loreak kanpoaldean dituen bi hegala, kolorez urdin-bioletak eta petalo itxuradunak, benetan sepalo eraldatuak dira eta petaloen funtzioa bereganatu dute.



POTENTILLA MONTANA

DESKRIBAPENA: 5-20 zentimetroko landare txikia, gehienetan estoloi luzeak dituena. Hostoak, hiru foliolobalatz osatuta daude, muturra zertxobait horztuna dutenak, gainaldea berde pubeszentea eta azpialdea gris zetatsua. Loreek 5 petalo zuri eskotatu dituzte.

LORALDIA: martxotik uztaiera.

HABITATA: sastrakadi soilduak eta baso soilune zertxobait harritsuak.

BANAKETA: Europako hego-mendebaldea eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Urkiolako mendatean eta Eskuagatxen aurki daiteke.

OHARRAK: klima atlantikoko eragina duten lekuetan hazten den espeziea.



KUKUPRAKA (*Digitalis purpurea*)

DESKRIBAPENA: 50-150 zentimetroko landare handia, zurtoina biloz estalia duena eta azpialdetik zurixkak diren hosto handi obal-lantzeolatuak dituena. Loreak handiak dira, kolorez purpura-arrosak eta kanpai itxuradunak; galburu luze eta trinkoetan hazten dira.

LORALDIA: maiatzetik uztaiera.

HABITATA: txilardiak, otadiak, ezpondak eta baso soiluneak.

BANAKETA: Europako mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz ikus daiteke Txakurzulo inguruan, Asuntzen, Saibin eta Urkiolagirreko magaletan.

OHARRAK: kukuprakak digitoxina izeneko substantzia du. Substantzia hau bihotzeko gaixotasunen tratamen-



duan erabiltzen da muskuluak bizkortzen dituelako; hala ere, dosi altuetan oso pozoitsua da.

URKIOLAKO PARKE NATURALEKO LARREETAKO FLORA

Larreak Urkiolako landaredian komunitate bereizgarrienetakoak izateaz gain, Parkeko jarduera ekonomiko garrantzitsuenetakoa den abeltzaintzaren oinarri dira. Gizakiak, jadanik Neolitoan, larreak lortzeko ahaleginak egin zituen, horretarako zuhaitzak moztuz.

Behi, behor zein ardien artzaintzak, larreetan ohizkoak diren gramineo eta leguminosen familietako landareen ugartzea dakar. gainera, abereen gorotzek lurzorua ongarriztatzan dute, larreen emankortasuna emendatzen lagunduz. Baldintza klimatiko lokalak, lurzoru motak, topografiak eta giza jarduera ezberdinek baldintzatuta, mota askotako larreak sortzen dira, mendi larreak, albitz belardiak eta sega belardiak horien artean.

mendi larreak dira ugarienak Urkiolako mendietan eta



estai menditarrean aurki daitezke, pagadiaren eremuan. Larre hauetan abereak egon ohi dira ia urte osoan larratzen eta beti berde mantentzen dira. Mendi larreetako bereizgarriak dira besteak beste, Festuca rubra gramineoa, hirusta zuria, Eryngium bourgatii eta askari-lorea. Larre zabalenak Mugarriko landan, Eskuagan, Saibin, Urkiolagirren eta Zabalandin daude. Aramotzen eta Alluitz-Anboto mendilerroan, abere gutxi larratzen duten hainbat lekutan bereziki, albitz belardia ageri da, hosto latz eta luzedun albitz belar izeneko gramineoaz osatuta. Bestalde, baserri inguruetan, urtean zehar bi edo hiru aldiz segatu ohi diren sega belardiak ageri dira. Baserriarrek, artifizialki ongarriztatzen dituzte eta landare bereizgarriak dira aski usainduna, alka-belarra, hirusta



gorria, basabitzilorea eta txikori belarra. Sega belardiak Urkiolako mendatean eta Intxaurrealde eta Gatzaieta baserrien inguruan ikus daitezke.

ERYNGIUM BOURGATII

DESKRIBAPENA: 15-45 zentimetroko landarea, urdinxka eta arantza asko dituen. Oinaldeko hostoak nabariki zatikatuak eta lobulatuak dira eta arantza ugari dituzte. Loreak urdinxkak dira eta arantza luzez inguratutako multzo trinko biribildua eratzen dute.

LORALDIA: uztailetik abuztura.

HABITATA: azaleko lurzorua duten mendi larreak.

BANAKETA: Europako hegoaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarrikolandan eta Aramotzeko larreetan aurki daiteke.

OHARRAK: aziendak larratzen duen lekuetan agertu ohi da. Bere gaztelaniazko izenak dioenaren arren ez da benetako kardua.



MILORRIA (Achilea millefolium)

DESKRIBAPENA: 20-70 zentimetroko landare ten-tea, usaintsua eta leuna. Hostoak bi aldiz zatikatuak daude eta segmentu finak dituzte. Loreak unbela falsuak eratzen dituzten kapitulu txikitan hazten dira. Kanpoaldeko loreak liguladunak dira, zuriak edo arrosak muturrean eta barrualdekoak tubularrak eta horixkak.

LORALDIA: ekainetik irailera.

HABITATA: belardiak, larreak, baserri inguruak eta leku belartsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Urkiolako mendatean, Intxaurrealden eta Mañariako larreetan ikus daiteke.

OHARRAK: ezaugarri sendagarri asko dituen landarea da. Bere loreak eta hostoak infusioan har daitezke eta toniko, lasaigarri, espasmokontrako, hemorroidekontrako eta garbigarri modura dira baliagarri.



BASABITXILOREA (Bellis perennis)

DESKRIBAPENA: 5-25 zentimetroko landare iraunkorra, koilara itxurako hostoak dituen, zertxobait horztunak eta erroseta zapal batean ezarrita. Kapitulu bakartiak ditu, kanpoaldeko loreak kolorez zuriak dira (batzuetan zertxobait gorristak) eta liguladunak, erdialdekoak horiak.

LORALDIA: martxotik uztaileira.

HABITATA: belardiak, larreak et leku belartsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; erraz ikus daiteke udaberrian zehar edozein larretan.

OHARRAK: landare honen hostoak jangarriak dira eta entsaladan zein beste barazkiekin egosita jan daitezke.



CAMPANULA GLOMERATA

DESKRIBAPENA: 10-50 zentimetroko landarea, biloz estalia eta zurtain angelutsuak dituen. Hosto obalak edo lantzeolatuak ditu, oinaldean bihotz itxuradunak. Lore gehienak, kolorez bioletak, burutxa trinko batean ezartzen dira zurtainaren muturrean.

LORALDIA: ekainetik abuztura.

HABITATA: larreak eta harkaiztietako erlaitz belartsuak.

BANAKETA: Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Mugarrikolandan eta Anbotoko magal belartsuetan aurki daiteke.

OHARRAK: parkean genero bereko beste 7 espezie daude, baina batzuk zailak dira desberdintzen.



TXIKORI-BELARRA (Taraxacum officinale)

DESKRIBAPENA: Oinaldean hostoen erroseta duen 5-40 zentimetroko landarea. Hostoak luzangak dira eta ia osoak izatetik oso zatikatura izan daitezke, ertza arotzaren zerra baten modukoa dutela. Loreak horiak dira eta kapitulu bakartietan hazten dira, zurtain luze baten muturrean. Lore guztiak liguladunak dira.

LORALDIA: martxotik urrira.

HABITATA: belardiak eta leku belartsuak.

BANAKETA: Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; edozein belarditan aurki daiteke.

OHARRAK: landare jangarria da eta bere hostoak entsaladan har daitezke, baina zertxobait mingotsak direnez hobe da gazteak direnean biltzea. Hostoak eta



sustraiak, infusioan edanda ezaugarri sendagarri ugari dituzte, tonikoak eta diuretikoak besteak beste.

HATZ-BELARRA (*Knautia arvensis*)

DESKRIBAPENA: 25-70 zentimetroko landare pubes-zentea, lurpean estoloiak dituena. Hostoak oinaldeko errosetan edo zurtoinarene beheko aldean hazten dira eta batzuk behintzat oso zatikatuak daude. Loreak lilak edo bioletak dira eta burutxa biribilduetan ageri dira pedunkulu luze baten muturrean. Kanpoaldeko loreak barrualdekoak baino handiagoak dira.

LORALDIA: maiatzetik irailera.

HABITATA: belardiak, larreak eta sastrakadi soilduak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Intxaurraldeko belardietan ikus daiteke.

OHARRAK: espezie ginodioikoa da, landare batzuk



lore hermafroditak dituzten bitartean besteek lore emeak dituzte soilik.

MENDIKO USOBELARRA (*Lotus corniculatus*)

DESKRIBAPENA: 5-40 zentimetroko landarea, gehienetan herrestaria, hiru foliolo lantzeolatu edo biribildun hostoak dituena. Loreak, kolorez horiak edo laranjatuak dira, sarritan ildo gorriakadunak eta 2-7 loredun burutxa trinkoetan ezarrita.

LORALDIA: apiriletik irailera.

HABITATA: larreak, belardiak eta bide bazterrak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; erraz ikus daiteke edozein bide bazter belartsu edo belarditan.

OHARRAK: landare honen hostoek zianuroa (substantzia oso toxikoa) ekoizteko gaitasunean datzan defentsa kimikoa dute. Animalia batek bere hostoak irensten ditunean, zelulen barruan banatuta egon ohi



diren bi osagai askatzen ditu, elkartzerakoan zianuroa sortzen dutenak.

HIRUSTA GORRIA (*Trifolium pratense*)

DESKRIBAPENA: 10-60 zentimetroko landare iletsua. Hostoek hiru foliolo obal edo eliptiko dituzte, sarritan orban argidunak. Estipulen alde askea hiruki itxuraduna da. Loreak kolorez arrosak edo purpurak dira eta burutxa esferikoak eratzen dituzte. Kalizaren tutuaren kanpoko alda iletsua da.

LORALDIA: apiriletik urrira.

HABITATA: belardiak, bide bazter belartsuak eta baso soiluneak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; edozein belarditan aurki daiteke.

OHARRAK: bere izen zientifikoa (*pratense*) larreetan



hazten dela adierazten du. Belardietan bazka landare modura ereiten da.

HIRUSTA ZURIA (*Trifolium repens*)

DESKRIBAPENA: zurtoin herrestari eta sustraituak dituen 10-50 zentimetroko landarea, belar multzo zabalak eratzen dituena. Hostoek peziolo luzea dute eta orban zurixkadun hiru foliolo obal dituzte. Loreak zuriak edo zertxobait arrosak dira eta pedunkulu luzedun burutxa esferikoak eratzen dituzte. Kalizaren goiko hortzak estuki lantzeolatuak dira.

LORALDIA: apiriletik urrira.

HABITATA: belardiak, larreak eta leku belartsu freskoak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; edozein belardi edo larretan ikus daiteke.



OHARRAK: izen zientifikoa (*repens*) landare herrestaria dela adierazten du. Hirusta hau bazka landare modura ereiten da belardietan.

LINUM VISCOSUM

DESKRIBAPENA: 20-50 zentimetroko landare iletsua. Hostoak oblongo-lantzeolatuak eta txandakatuak dira, behekoek 1 milimetro baino gehiagoko luzeradun ileak dituzte eta gainaldekoen ertza guruindun ziloz hornituta dago. Arrosa koloreko petalo handidun loreak ditu, zain bioletadunak eta lehortzerakoan urdinduz doazenak. Sepaloak ere guruindun ziloz hornituta daude.

LORALDIA: maiatzetik uztaileira.

HABITATA: larreak, belardiak eta sastrakadi soilduak.

BANAKETA: Submediterraniarra. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; populazio bakarra ezagutzen da Anboto ipar magalean kokatutakoa.

OHARRAK: bere izen zientifikoa gainaldeko hostoetako eta sepaloetako (*viscosum*) guruindun zilio itsas-



korretatik datorkio.

MALVA MOSTACHA

DESKRIBAPENA: 20-80 zentimetroko landarea, beheko hostoak biribilduak eta gainaldekoak nabari-ki zatikatuak, ia oinalderaino, dituena. Loreak kolorez arrosak dira, zurixkak batzuetan, handiak dira eta hostoen galtzarbeetatik hazten dira, muturrekoak multzotan batzuetan.

LORALDIA: ekainetik irailera.

HABITATA: belardiak, hesi biziak eta baso soiluneak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Mañaria, Intxaurralde eta Olaetxekeko belardietan aurki daiteke.

OHARRAK: bere fruituak, gaztelaniaz panecillos edo quesicos deituak, jangarriak dira. Bere loreak eta kimu samurrak ere jan daitezke.



EZPATA-PLANTAINA (*Plantago lanceolata*)

DESKRIBAPENA: 10-60 zentimetroko landarea sarritan nerbio paralelodun hosto lantzeolatu nahiko luzeen erroseta batzuk izan ditzakeena. Loreen zurtoinak hostoen luzera bikoitzekoak dira eta 5 ildaska nabari dituzte luzetara. Loreak galburu tente trinkoetan ageri dira, oboideak edo zilindrikoak itxuraz. Loreak zurixkak dira eta antera zuri-horixkadun estamine irtenak dituzte.

LORALDIA: apiriletik irailera.

HABITATA: belardiak, larreak eta leku belartsuak.

BANAKETA: Subkosmopolita. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; edozein belarditan erraz ikus daiteke.

OHARRAK: landare honen hosto gazteak C bitaminan joriak dira eta entsaladan edo egosiak jan daitezke.



URREBOTOIA (*Ranunculus repens*)

DESKRIBAPENA: 10-50 zentimetroko landarea, estoloiduna eta 5 metroko luzera izan dezakeena. Hostoak hiru segmentutan banatuta daude, erdikoa pezioloduna. Lore horiak ditu, distiratsuak eta bakana ageri direnak pedunkulu luze baten muturrean. Sepaloak ez daude atzerantz kurbatuak.

LORALDIA: martxotik irailera.

HABITATA: belardiak eta leku heze belartsuak.

BANAKETA: Zirkunboreala. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; Artaun, Mañaria, Txakurzulo eta Urkiolako mendateko belardietan ikus daiteke.

OHARRAK: *Ranunculus* generoko espezieak ugariak dira eta horietako batzuk zailak dira bereizten. Urrebotoia landare toxikoa da.



BIOLETA (*Viola riviniana*)

DESKRIBAPENA: ilerik gabeko edo ia ilerik gabeko 5-30 zentimetroko landarea, zurtoinak zertxobait eroriak dituena. Hostoak bihotz itxuradunak dira. Loreak kolorez urdin-biolazeoak dira, petalo ezberdin eta zabalduak, azpikoa kanaldun espoloia duena muturrean, kolorez zuria edo zertxobait biolazeoa.

LORALDIA: martxotik ekainera.

HABITATA: belardiak, sastrakadiak eta baso soilduak.

BANAKETA: Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso arrunta da; ia edozein belarditan ikus daiteke.

OHARRAK: bioletaren fruituek mekanismo lehergarri bat dute haziak barreiatzeko; fruituaren irekitzea zakartasunez ematen da eta haziak indar handiz jaurtikiak izaten dira.



sunez ematen da eta haziak indar handiz jaurtikiak izaten dira.

ASKARI-LOREA (*Merendera montana*)

DESKRIBAPENA: 5-15 zentimetroko landare erraboilakara. Bere hosto estu eta luzangak, oinaldetik hazi eta loratu ostean agertzen dira. Loreak handiak eta bakartiak dira, kolorez arrosak, tepalo askeak dituzte eta baita ere hiru estilo aske. Heldutasunean eskapoa luzatu egiten da eta fruitu oblongo bat garatzen du.

LORALDIA: abuzturik urrira.

HABITATA: larreak eta leku harritsuak.

BANAKETA: Iberiar Penintsulako endemikoa. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; Aramotz mendizerrako zenbait lekutan aurki daiteke.

OHARRAK: udazkenean loratzen da, jadanik eguna laburtzen hasia denean eta askaria jateko astirik ez dagoenean, bere gaztelaniazko izenak (quitameriendas= askaria kentzen duena) adierazten duenez.



NARCISSUS ASTURIENSIS SUBSP. JACETANUS

DESKRIBAPENA: 5-15 zentimetroko landare txiki erraboilakara, hosto estu eta luzangak dituena. Lore bakarra du, kolorez horia, itxura zilindrikoduna eta aho ondulatuduna. Lorea beherantz okertuta egon ohi da.

LORALDIA: otsailetik apirilera.

HABITATA: mendiko larreak eta harkaiztietako erlaitz belartsuak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula iparraldeko endemikoa. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; Aramotz mendizerran aurkitu da soilik.

OHARRAK: landare bakana denez, "Euskal Autonomi Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan", "Interes Berezikoa" kategorian sartuta dago.



SCILLA VERNA

DESKRIBAPENA: 5-25 zentimetroko landare erraboilakara. Hosto estu eta luzangak ditu, kolorez berde distiratsuak. Loreak kolorez urdinak edo bioletak dira, izar itxura dute eta burutxa trinkoa eratzen dute zurtoinaren muturrean hostoak agertu ondoren.

LORALDIA: martxotik ekainera.

HABITATA: belardiak, larreak, sastrakadi irekiak, baso soiluneak eta harkaiztietako erlaitzak.

BANAKETA: Europako mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; hainbat lekutan aurki daiteke, Anboto magaletako larreetan, Urkiolagirren eta Saibin esaterako.

OHARRAK: bere izen zientifikoak (verna) udaberriko landarea dela adierazten du.



ACERAS ANTHROPOPHORUM

DESKRIBAPENA: zurtoin tentea eta leuna duen 10-50 zentimetroko landarea. Hostoak oblongoak edo oblongo-lantzeolatuak dira, gaine-koak txikiagoak. Infloreszentzia luzanga bat ematen du, hori bes-dexkak eta batzuetan tonu gorriak dituzten lore ugaz hornitua. Loreak kaskoa du gainean eta labeola zatikatua du, zintzilikatutako pertsona txiki baten itxura hartuz.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: larre harritsuak eta sastrakadietako soiluneak, lurzoru karetsuetan gehienetan.



BANAKETA: mediterraneoko eskualdea eta Europako erdialdea eta mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; Asuntze inguruan eta Anbotoko ipar magalean aurkitu da soilik.

OHARRAK: gaztelaniazko izen arrunta (hombrecillos ahorcados= gizontxo urkatuak) eta izen zientifikoa (antrophorum = gizona duena) loreak duen urkatutako gizaki itxuratik datozkio.

ERLE-LOREA (*Ophrys apifera*)

DESKRIBAPENA: hosto obalak edo lantzeolatuak dituen 10-50 zentimetroko landarea. Loreak, dozena bat baino lore gutxiago dituen galburu lasai batean ageri dira. Sepaloak zuri-arrosak dira eta erdiko nerbio berdea nabaria dute. Labeloa kolorez purpura da, belusatua da eta ertz horidun orban bioleta edo arre-gorrika du.

HABITATA: belardi lehorrak, larre harritsuak, ezpondak eta baso soiluneak.

BANAKETA: ia Europa osoa eta mediterraniar arroa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Urkuletan, Kobagorri azpian eta Anboto eta Alluitzeko magaletan ageri da.

OHARRAK: orkideo honen loreak erle baten antza du. kolore eta usainak erabiliz lorea estali nahi duten intsek-



tuak erakartzen ditu, era horretan beste landare batera garraiatuko duten polenez betetzen dira orkideoaren ugalketa errazten dute.

OPHRYS SCOLOPAX

DESKRIBAPENA: 10-40 zentimetroko landarea, hosto lantzeolatuduna eta lore gutxirekin osatutako infloreszentzia duena. Sepaloak arrosak izan ohi dira eta labeloak, handia eta obalatua, eranskin hori bat du muturrean eta H itxura duen orban bioleta edo urdinxka gainaldean.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: larre lehorrak eta sastrakadiak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula eta Frantziako hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; *Ophrys apifera* landarearekin batera ikus daiteke Kobagorri inguruan, Mañariatik hurbil.

OHARRAK: beste orkideo askoren modura, bere loreek intsektuen antza dutenez, erakarri egiten dituzte eta lorearekin ugaltzen saiatzerakoan pole-



na landare batetik bestera garraiatzen dute.

ORCHIS MASCULA

DESKRIBAPENA: 20-60 zentimetroko landarea, oinaldean itxura oblongo-lantzeolatudun 4-8 hosto dituen. Loreak kolorez purpurak edo arrosak dira eta galburu luze batean ezartzen dira. Lore bakoitzak ezproi zilindriko luze bat du atzealdean eta labeloa zertxobait lobulatua da.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: belardiak, sastrakadiak, bide bazter belartsuak eta baso soiluneak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean orkideo ugariena da; erraz ikus daiteke Mañariatik Urkiolarako igoeran eta Atxondoko Parkerako sarbideetan.

OHARRAK: emoliente gisa eta beherakoaren aurka erabil izan da batzuetan. Europa eta Ekialde Hurbileko zenbait lekutan salep izeneko edari elikagarri bat prestatzen dute landare honen eta beste orkideo batzuen tuberkuluekin.



KURKUBIA (*Rhinanthus mediterraneus*)

DESKRIBAPENA: 15-40 zentimetroko landarea, sarritan adarkatua eta zurtoinaren ebaketa lauangeluarra duena. Hostoak oposatuak dira, lantzeolatuak eta ertz zerradunekoak. Loreak banaka hazten dira hostoen galzarbeetan, kolorez horiak, ezpain bikoak dira eta gainera ezpainean hortz bioletak dituzte. Kaliza puztua eta hauts finez estalia du.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: belardiak, larreak, bide bazterrak eta baso soiluneak.

BANAKETA: Mediterraneoko arroko herrialdeak. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Astxiki eta Alluitzeko magaletako larreetan aurki daiteke.

OHARRAK: landare hemibizkarroia da. Alboko landare-



en sustraiekin lotura guneak ezarri, beharrezkoak dituen elikagaiak lor ditzake.


URKIOLAKO PARKE NATURELEKO INGURUNE HARRITSUETAKO KOMUNITATEEN FLORA

Harkaiztia, Urkiolako Natur Parkeko paisaiaren elementu bereizgarria da. Arangioko mendizerratik hasi eta Aramotzeraino, kareharriz osatutako mendi malkartsuen ilara luzea ageri da: Anboto, Alluitz, Astxiki, Untzillatx, Mugarra.

Harkaitzeko multzo handi honetan, erliebeak era guztietako itxurak erakusten ditu. Kareharriaren higadura dela medio, arrakalak, labarrak, hartxingadiak, erlaitzak, lenarrak, etab. sortzen dira. Ingurumen baldintzen aniztasun horrek, landare espezieen dibertsitatea handia izatea eragiten du, Parkeko garrantzi floristiko handieneko ingurunea bilakatuz. Komunitate ezberdin batzuk bereiz daitezke. Labarretako arrakalatan adibidez, hainbat iratz (xardin-belar beltza, horma erruda *Cystopteris fragilis*) eta loredun landare



(*Saxifraga trifurcata*, *Saxifraga paniculata*, *Erinus alpinus*, *Draba dedeana*) ageri dira. Harkaitz arteko zelaiguneetan *Sesleria albicans* gramineoa, *Globularia nudicaulis* eta *Rosa pendulina* hazten dira besteak beste, eta harkaitz heze eta itzaltsuenetan hosto handiak dituzten ira-belar horia, *Meconopsis cambrica* eta *Veratrum album* bezalako landareak aurki daitezke. Tarteka, zuhaitz eta zuhaixka batzuk ere sustraitu egiten dira arrakala edo zuloetan, hagina, otsapagoa eta hostazuria horien artean. Mendi harritsuak, irla modukoak dira landareen ikuspegitik, eta tarteko lurraldeak (basoz, sastrakadiz eta larrez estalita-koak) itsaso ia gaindiezinak bihurtzen dira landareentzat. Ondorioz, landare askok banaketa oso mugatua dute, eta Pirinioetan edo kantabriar mendikatean ohizkoak badira ere, Urkiolako mendietan oso bakanak dira, *Aster alpinus* eta *Aquilegia pyrenaica* esate baterako.



OTSAPAGOA (*Rhamnus alpinus*)

DESKRIBAPENA: 4 metro arte haz daitekeen zuhaixka hostoerorkorra, tentea edo bihurria eta sarritan oinetik adarkatua. Hosto txandakatuak ditu, obalatuak, hortz findunak, berde argiak eta nerbio nabaridunak. Loreak ia beti sexubakarrak dira, oin ezberdinetan daude eta txikiak eta berde-horixkak dira. Fruitua drupa txiki biribildua da, kolorez beltz-urdinxka.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: harkaitziak, hartxingadiak eta baso soilune harritsuak, kareharriaren gainean batez ere.

BANAKETA: Europako hegoaldea eta Afrikako iparraldea, mendietan bereziki. Urkiolako Natur Parkean zuhaixka bakana da; Untzillatz eta Astxiki mendietako harkaitzietan aurki daiteke.

OHARRAK: hostoek pagoaren hostoen antza dute,



baina hostoaren ertzak hortz finak ditu eta nerbioak nabariagoak dira; gainera pagoa baino askoz txikiagoa izan ohi da.

ARKAKARATSA (*Rosa pendulina*)

DESKRIBAPENA: 0,2-1,5 metroko zuhaixka txikia arantzagabea edo ezten gutxi dituen. Adar loreduen azala horixka edo purpura da. Hostoek 7-11 foliolo dituzte, eliptikoak edo obobatuak eta ertzean hortz guruindunak dituztenak. Loreak bakarka ageri ohi dira gehienetan, kolorez purpurak edo arrosa biziak.

LORALDIA: ekainetik abuztura.

HABITATA: harkaitzietako erlaitzak eta gandorrek eta sastrakadi harritsuak.

BANAKETA: Europako erdialdeko eta hegoaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Eskuagatxen eta Anbotoko gailurraren inguruan aurki daiteke.

OHARRAK: leku malkar eta haizetsuenetako landareek ezin dute gorantz egin eta etzanda geratu ohi dira



harrien gainean.

HAGINA (*Taxus baccata*)

DESKRIBAPENA: 20 metro arteko zuhaitz hostoiraunkor dioikoa. Adaburu piramidal zabala du, adar horizontal ugari ditu eta enborraren azala arre gorrixka edo grisaxka da. Hosto estuak ditu, berde ilunak gainetik eta berde-horiskak azpitik. Kono arrak txikiak eta horiak dira eta emearen hazi hasikinak oboideak. Hazi bakarra ematen du bildukin mamitsu gorri eta gozo batez estalia.

LORALDIA: otsailetik apirilera.

HABITATA: mendi hegal eta gailur harritsuak, amildegietako oinaldeak eta baso mistoak.

BANAKETA: ia Europa osoa, Asiako mendebaldea eta Afrikako iparraldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz urria da; Eskuagatxen eta Alluitzeko gailurrerian aurki daiteke. Aipatzekoak dira Keixan dauden bi hagin handiak.

OHARRAK: bere egurra oso gogorra eta preziatua da, eba-



nisterian eta untzigintzan erabilia. Pozoitsua da, baina hazia inguratzen duen estalki gorria jangarria da. Oso urria denez eta leku askotan atzerakada handia izan duenez babestuta dago.

EZKI HOSTOZABALA (*Tilia platyphyllos*)

DESKRIBAPENA: 10-40 metroko zuhaitz hostoerorkor sendoa. Azala grisa da, leuna hasieran eta zartatua hazterakoan. Hosto handi obatuak ditu, puntan bukatuak eta ertz zerradunekoak. Loreak zima zintzilikatueta ageri dira eta fruitua biribildua da, madari txiki baten itxurakoa.

LORALDIA: ekainetik uztailera.

HABITATA: leku harritsuetako baso mistoak, sakonune harritsuak eta harkaitzetako oinaldeak, kareharrietan batez ere.

BANAKETA: Europako erdialdea eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean zuhaitz urria da; Aramotzen eta Eskuagatxen aurki daiteke.

OHARRAK: brakteak infusio lasaigarri bat egiteko era-



biltzen dira. Bere egurra oso ona da tailak egiteko.

DRABA DEDEANA

DESKRIBAPENA: Kuxin itxuradun 3-10 zentimetroko landare txikia. Hostoek errosetak eratzen dituzte oinaldean, lerro formakoak edo lantzeolatuak dira eta ertz ziliaduna dute. Loreek, kolorez zuriak, muturrean eskotatuiko eta estamineak baino luzeagoak diren petaloak dituzte. Silikula iletsua da.

LORALDIA: martxotik maiatzera.

HABITATA: harkaitzietako arrakalak eta erlaitzak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula iparraldeko mendietako endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Anbotoko gailur harritsuen inguruan ageri da.

OHARRAK: landare hau mendietan bizitzera moldatuta dago eta muturreko ingurumen baldintzak jasan ditzake, hala nola, elurra, haize indartsuak, izozte handiak neguan eta tenperatura altuak udan.



IBERIS CARNOSA

DESKRIBAPENA: 5-15 zentimetroko landare txikia, espatula itxuradun hosto txiki luzangak dituena. Multzo trinkoetan hazten da eta lore zuriak ditu (tonuz lilak batzuetan) infloreszentzia biribilduetan bilduta.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: harkaiztiak, hartxingadiak eta larre harritsuak.

BANAKETA: Europako hegoaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Untzillatx, Alluitz eta Anbotoko kareharrizko mendietan aurki daiteke, besteak beste.

OHARRAK: landare honen haziak, beste brasikazeoen antzera, leka baten barruan garatzen dira; euria egiten duenean, euri tantak lekaren gainean erori eta leka uzkuritu egiten da haziak kanporatuz eta berorien saka-



banaketa erratuz.

CERASTIUM ARVENSE

DESKRIBAPENA: 3-20 zentimetroko landarea, herrestaria edo tentea, landare multzo nahaspilatuak sortzen dituena. Hosto oposatu txikiak ditu estuak eta luzangak. Loreak zuriak dira, bitan banatutako petaloak dituzte eta multzo txikietan ageri dira zurtoinen muturrean.

LORALDIA: apiriletik abuztura.

HABITATA: larre harritsuak, hartxingadiak, harkaitzetako erlaitzak eta gailur harritsuak, bereziki kareharrietan.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Alluitz eta Anboto harkaitzietan aurki daiteke.

OHARRAK: gainazalean dituzten guruindun ileei esker landare honen haziak animalien larruazalean itsatsi egiten dira, era horretan sakabanaketa erratuz.



TEILATU-BELAR ZURIA (*Sedum album*)

DESKRIBAPENA: Zurtoin antzuak dituen 8-20 zentimetroko landare txiki herrestaria. Hostoak estuak eta zilindrikoak dira, txikiak, txandakatuak eta sarritan gorrixkak. Loreak txikiak eta zuriak dira, korinboak osatuz.

LORALDIA: ekainetik abuztura.

HABITATA: leku harritsuak eta harrizko horma artifizialak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Atxarte, Mugarra eta Alluitzeko haitzetan aurki daiteke.

OHARRAK: landare hau, ura metatzen duten hosto mamitsuei esker leku harritsuetan bizi daiteke.



TEUCRIUM PYRENAICUM

DESKRIBAPENA: 5-15 zentimetroko landarea, zurezkoa oinaldean, zertxobait iletsua eta zurtoin etzana dituena. Hostoak biribilduak eta oposatuak dira, falka itxuradunak oinaldean eta hortz kamustunak. Leku burutxa trinkoetan bilduta daude, kolorez zuriak dira eta purpurak muturrean.

LORALDIA: maiatzetik uztailera.

HABITATA: larre harritsuak, harkaiztietako erlaitzak eta arrakalak eta hartxingadiak.

BANAKETA: Europako hego-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Aramotzen, Mugaran, Eskuagatzen eta Anboton aurki daiteke.

OHARRAK: landare honek, bere moldaerei esker ondo jasaten ditu harkaitzetan ematen diren bizi baldintza gogorak, hala nola, ur gabezia, lurzoru eskasia eta



muturreko tenperaturak.

ERLE-BEDARRA (*Thymus praecox subsp. polytrichus*)

DESKRIBAPENA: 5-10 zentimetroko landare txiki herrestaria, oinaldea zurezkoa duena eta belar multzo trinkoak eratzen dituena. Hosto txiki oposatuak ditu, eliptikoak edo obatuak, oinaldean iletsuak. Lore txikiak ditu, kolorez purpurak eta muturreko burutxa trinkoetan bilduta.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: larre harritsuak, sastrakadi irekiak, gando-rrak eta harkaitzetako erlaitzak.

BANAKETA: Europako erdialdeko eta hegoaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; edozein leku harritsutan aurki daiteke.

OHARRAK: ezka mota bat den arren ez dirudi erabilerarik herrikoia dituenik.



OTSABABA ARRA (*Helleborus foetidus*)

DESKRIBAPENA: Zurtoin iraunkorak dituen 20-60 zentimetroko landare sendoa. Hostoek ertz zerraduneko lobulu luze eta estu ugari dituzte. Loreak berdeak dira, ertza zertxobait purpura da, kanpai itxura dute eta mordo handitan ageri dira zintzilik.

LORALDIA: urtarrietik apirilera.

HABITATA: mendi hegal harritsu eguzkitsuak eta hartxingadiak.

BANAKETA: Europako erdialdea eta mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Anboto eta Alluitzeko gailurreriatik jaisten diren hartxingadietan, Astxikin eta Untzillatzen ikus daiteke.

OHARRAK: usain txarreko landare pozoitsua da. Neguan loratzen den landare bakarrenetakoa da.



SAXIFRAGA PANICULATA

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea, hainbat erroseta elkartzen dituen estoloi meheak dituen. Hostoak erroseta trinkoan ageri dira oinaldean, luzangak dira, zertxobait urdinxkak eta karezko inkrustazio txikiak dituzte ertzetan. Lore zuri txikiak ditu, loredun zurtoinaren gaineko erdialdea baino gutxiago betetzen duen panikula osatuz.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: kareharrizko harkaiztietako arrakalak eta erlaitzak.

BANAKETA: Boreoalpetarra. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarra, Alluitz eta Anbotoko harkaiztetan aurki daiteke.

OHARRAK: landare honek xurgatzen duen gehiegizko kaltzio karbonatoa hostoetatik kanporatzen du,



hostoaren ertzean karezko inkrustazio txiki zuriak sortuz.

SAXIFRAGA TRIFURCATA

DESKRIBAPENA: Kuxin nahiko irekiak eratzen dituen 10-30 zentimetroko landarea. Hosto larrukarak ditu, itxura triangeluarreko hostoen segmentutan zatikatuta. Lore zuri txikiak ditu gandor korinbotsuetan.

LORALDIA: maiatzetik uztaileira.

HABITATA: harkaizti eta lenarretako arrakalak.

BANAKETA: Iberiar Penintsula iparraldeko endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Alluitz eta Anboto mendietako harkaiztetan aurki daiteke.

OHARRAK: *Saxifraga trifurcata* espezieetik erraz bereiz daiteke, azken honen hostoak osoan diren bitartean *Saxifraga trifurcata* espeziearenak oso zatikatuak direlako.



PIPER-BELARRA (*Vincetoxicum hirundinaria*)

DESKRIBAPENA: errizomadun 20-80 zentimetroko landare handi eta oso tentea. Hostoak zurtoinean zehar daude ezarrita, oposatuak dira, obal-lantzeolatuak eta peziolo laburdunak. Lore txikiak ditu, ez dira batera deigarriak, kolorez zuri-horixkak eta hostoen galtzarbeetatik irteten diren mordo txikietan kokatuta.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: harkaiztietako hartxingadiak eta erlaitzak eta basoetako soilune harritsuak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; edozein mendi harritsutan aurki daiteke.

OHARRAK: landare pozoitsua da.



ASTER ALPINUS

DESKRIBAPENA: zurtoin bakar eta pubeszentea duen 5-25 zentimetroko landarea. Kapitulu bakarra du zurtoinaren muturrean, kolorez lila kanpoaldean eta horia erdialdean. Hostoak obalatuak dira, gehienak oinaldean daude eta zertxobait zurixkak dira iletxoak dituztelako.

LORALDIA: ekainetik abuztura.

HABITATA: kareharrizko gandorak eta larre harritsuak.

BANAKETA: Europako mendi altuak. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; Mugarra mendian aurkitu da soilik. Parketik hurbil beste populazio bat dago Udalatx mendian.

OHARRAK: San Juan lorearen antza du, baina zuria izan beharrean lila kolorekoa. Parkeko landare bakanenetakoa denez, ez da inolaz ere bildu behar.



Euskal Autonomi Erkideagoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan", "*Bakana*" kategorian sartuta dago.

HIERACIUM MIXTUM

DESKRIBAPENA: 5-20 zentimetroko landare txiki berde-zurixka, gutxi adarkatua eta ile bilotsuz estalita. Oinaldean itxura obobatadun hosto iletsuak ditu. Lore horiz eratutako kapitulu gutxi batzuk ematen ditu. Inbolukruaren brakteak ere oso iletsuak dira.

LORALDIA: maiatzetik uztaileira.

HABITATA: kareharrizko harkaiztietako arrakalak.

BANAKETA: endemismo piriniar-kantauriarra. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; untzillatx, Alluitz eta Anboto mendietako harkaiztietan aurki daiteke.

OHARRAK: ile zuriek, landarea muturreko tenperaturetatik, haizeak eragindako lehorketatik eta eguzkiaren erradiazioetatik babesten dute.



SUGEGORRI-BELARRA (*Echium vulgare*)

DESKRIBAPENA: 20-90 zentimetroko landare bienala, oinaldean hostoen erroseta handia eta ile gorritz estalitako loredun zurtoin tenteak dituen. Hosto iletsuak ditu, eliptikoak edo lantzeolatuak. Loreak urdinak edo bioletak dira eta zurtoinean zehar kokatuta daude.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: harkaiztiak, larre idorrek eta bide bazterrak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; kareharrizko mendietako (Mugarra, Untzillatx, Astxiki) erlaitz belartsuetan aurki daiteke.

OHARRAK: landare honen oinaldeko errosetako hostoak jangarriak dira eta beste barazi batzuekin egosita daitezke. Hostoen bilaketa neguan edo udaberri hasieran egin behar da, udan latzegiak direlako.



ERYSIMUM GORBEANUM

DESKRIBAPENA: 10-40 zentimetroko landare berde-grisaxka, adar antzuez hornitua eta ipurdi adarkatua duena. Hosto estu eta luzangak ditu. Loredun zurtoinak tenteak dira eta lau petalo horidun loreak ditu muturrean bilduta.

LORALDIA: apiriletik ekainera.

HABITATA: harkaiztietako gandorrek, arrakalak, larre harritsuak eta hartxingadiak.

BANAKETA: Iberiar Penintsulako ipar-erdialdeko endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarra, Untzillatx, Astxiki, Anboto eta Orixoleko harkaiztietan aurki daiteke.

OHARRAK: *Erysimum gorbeannum*, *Erysimum gr. decumbens* taxon zabalarri dagokion mikro-espezia da.



ZAURI-BELARRA (*Anthyllis vulneraria*)

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea. Hosto pinatuak ditu foliolo obalatu ugariz hornitua; muturreko folioloa albokoak baino handiagoa izan ohi da. Loreak, kolorez horiak eta batzuetan gorrixkak edo laranja, multzo biribildu trinkoetan ageri dira. Loreek kaliza puztuta dute.

LORALDIA: apiriletik abuztura.

HABITATA: gandorrek eta mendi hegal harritsuak.

BANAKETA: Europako mendebalde eta hegoalde. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Mugarran eta Alluitz-Anboto mendilerroan aurki daiteke.

OHARRAK: sendabelarra da eta zauriak sendatzeko erabil daiteke. Tindagai urdina eta gorria lortzeko

ere erabil daiteke.



VICIA PYRENAICA

DESKRIBAPENA: 5-30 zentimetroko estoloidun landare txikia. Hostoek foliolo biribilduak dituzte eta muturrean hosto kiribila. Loreak handiak dira (2 zentimetro ingurukoak), bakartiak eta kolorez purpura-bioleta biziak. Fruitua eta luzanga beltza da.

LORALDIA: maiatzetik uztaiera.

HABITATA: leku harritsuak, hartxingadiak eta gandorrek.

BANAKETA: Europako mendebaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Artatzagan, Mugarra, Untzillatx, Alluitz eta Anboto tontor harritsuen aurki daiteke.

OHARRAK: lurrera finkatzen dituen estoloiei esker, landare hau etengabe mugitzen ari den hartxingadietan bizi daiteke.



GENTIANA OCCIDENTALIS

DESKRIBAPENA: hosto lantzeolatu distiratsuak dituen 5-20 zentimetroko landarea. Hosto gehienak oinaldean hazten dira. Loreak handiak dira, tronpeta itxuradunak, kolorez urdin biziak eta barrualdean orban berdez apainduak.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: harkaiztietako arrakalak eta erlaitz belartsuak.

BANAKETA: Kantabriar eta mendebaldeko Pirinioetako endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; Anboto eta Mugarrako tontorren inguruan besterik ez da aurkitu.

OHARRAK: gentziana honek lore oso deigarriak ditu, baina landare bakana izaterakoan ez da inolaz ere bildu behar, bere biziraupena arriskuan jarri baitezakegu.



GLOBULARIA NUDICAULIS

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea, batzuetan kuxin handiak eratzen dituzten hosto ugari dituen oinaldean. Hostoek nerbio nabari bat dute, lantzeolatuak edo obalak dira eta muturra biribildua da. Loreak kapitulu trinko biribilduetan ageri dira, kolorez urdinak edo lilak.

LORALDIA: apiriletik maiatzera.

HABITATA: harkaiztietako arrakalak eta erlaitzak.

BANAKETA: Europako erdialdeko eta hegoaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarra, Anboto eta Ipizteko harkaiztietan aurki daiteke.

OHARRAK: landare honek harkaitzetako arrakaletan barneratzen diren sustrai sendoak ditu.



MECONOPSIS CAMBRICA

DESKRIBAPENA: iletzoz estalitako 30-80 zentimetroko landare liraina. Hosto oso zatikatuak ditu, segmentuak obalak edo lantzeolatuak dira ertza zerraduna eta hostoaren azpialdea glaukoa. Lore handi bakartiak ditu pedunkulu luze baten muturrean, kolorez hori bizi distiratsuak.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: harkaiztietako leku heze eta itzaltsuak.

BANAKETA: Europako mendebaldeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; populazio gutxi batzuk ezagutzen dira Untzillatxen eta Anboton.

OHARRAK: oso deigarria den mitxoleta mota bat da.



ARMERIA PUBINERVIS SUBSP. ORISSONENSIS

DESKRIBAPENA: 14-40 zentimetroko errizomadun landarea, oinaldean errosetak eratzen dituzten hosto ugari eta loredun eskapo luzeak dituena. Hostoak estuak eta luzeak dira, kolorez berde biziak. Loreek, kolorez arrosak, glomeruluak osatzen dituzte pedunkulu luze baten muturrean.

LORALDIA: maiatzetik uztaiera.

HABITATA: harkaiztietako erlaitz belartsuak.

BANAKETA: Iberiar Penintsulako iparraldeko endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; soilik Anboto mendian aurkitu da.

OHARRAK: oso bakana denez "Euskal Autonomi Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan", "Interes



"Berezikoa" kategorian sartuta dago.

UDABERRI-LOREA (*Primula veris supsp. columnae*)

DESKRIBAPENA: oinaldean hostoen errseta duen 10-30 zentimetroko landare iletsua. Hostoek nerbio oso nabariak dituzte eta hostoak bat-batean estutzen dira peziolo aldera. Loreak kolorez hori biziak dira, usaintsuak, pedunkulu luze baten muturrean bilduta daude eta alde berdinerantz okertuta.

LORALDIA: martxotik maiatzera.

HABITATA: larre harritsuak eta harkaiztietako erlaitzak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarra, Alluitz eta Anboto mendi hegaletan aurki daiteke.

OHARRAK: Primula eliator espeziearekin nahas daiteke, baina azken honen loreak kolorez hori argiak dira eta usaingabeak; gainera leku hezeetan hazi ohi da.



AQUILEGIA PYRENAICA

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea, zurtoin adarkatuak izan ohi dituena. 1-5 lore handi izan ohi ditu, kolorez urdin biziak edo lilak. Loreek zertxobait kurbatuak diren ezproi luze batzuk dituzte atzealdean.

LORALDIA: maiatzetik uztaiera.

HABITATA: kareharritzko arrakalak eta erlaitzak.

BANAKETA: endemismo piriniar-kantauriarra. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; sakabanatua ageri da Aramotz, Untzillatz, Alluitz eta Anboto leku malkarrenean.

OHARRAK: landare bakana denez, interes berezia du. Aquilegia vulgaris espeziearean antza duen arren, azken hau baino txikiagoa denez erraz bereiz daiteke, gainera habitat ezberdinetan bizi dira. Aquilegia pyrenaica kare-



harrizko harkaiztietan bizi da eta Aquilegia vulgaris leku hezeetan eta lareetan.

ERINUS ALPINUS

DESKRIBAPENA: 5-20 zentimetroko landare txikia, loredun zurtoin ugari dituena. Hostoek espatula itxura dute, behekoak errosetan hazten dira eta zurtoinekoak txandakatuta. Lore txikiak ditu, kolorez purpura-arrosak, zurtoinen muturrean lore mordoak osatuz.

LORALDIA: maiatzetik irailera

HABITATA: haitzetako arrakalak eta hartxingadiak kareharritzko harkaiztietan.

BANAKETA: Europako hegoaldeko eta erdialdeko mendiak. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz ikus daiteke Ipizte, Anboto, Eskuagatx eta Mugarako harkaiztietan.

OHARRAK: landare txikia den arren, loraldian ikusgarri bihur daiteke bere loreen koloreak arreta



deitzen duelako kareharri grisaren gainean.

VALERIANA MONTANA

DESKRIBAPENA: 20-50 zentimetroko landarea, batzuetan iletsua eta errizoma zertxobait adarkatua duena. Oinaldeko hostoak biribilduak dira eta gainekoak obatuak edo lantzeolatuak dira eta gainekoak obatuak edo lantzeolatuak eta oposatuak.. Loreen unbela faltsua eratzen dute eta kolorez arrosak, lilak edo ziriak dira.

LORALDIA: maiatzetik uztaiera.

HABITATA: harkaiztietako arrakalak eta larre harritsu hezeak.

BANAKETA: Europako erdialdeko eta hegoaldeko. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Alluitz inguruan aurki daiteke.

OHARRAK: Valeriana generoko espezieen lore hermafroditetan estiloak anterak baino lehenago heldu egiten



dira, proteroginia izenez ezagutzen dena.

ZITORI HORIA (*Lilium pyrenaicum*)

DESKRIBAPENA: 40-100 zentimetroko landare sendo erraboilakara, hosto berde distiratsu, estu eta luze ugari dituena zurtoinean zehar. Lore handiak ditu, dilindariak, kolorez hori biziak eta orban beltzez hornituak. Petaloak atzerantz irauliak egon ohi dira.

LORALDIA: maiatzetik uztaiera.

HABITATA: labarretako oinaldeak, horma harritsuak eta arrakala itzaltsuak.

BANAKETA: endemismo piriniar-kantauriarra. Urkiolako Natur Parkean landare bakana da; Untzillatzeko hego magaleko hormetatik zintzilik, Alluitzeko kanaletan, Astxikin eta Eskuagatxen ikus daiteke.

OHARRAK: landare deigarri honek arazoak ditu ugaltzeko azienden eraginez. Gomendagarria litzateke populazio batzuk hesitzea ardi eta ahuntzen sarrera ekiditeko.



VERATRUM ALBUM

DESKRIBAPENA: 0,5-1,5 metroko landare handia, erri-zomaduna, zurtoin hutsak eta hosto ugari dituen. Hostoak handiak dira, obalak eta tolestatze longitudinalekin. Loreak berdeak edo horixkak dira eta infloreszentzia luze adarkatuetan hazten dira.

LORALDIA: maiatzetik abuztura.

HABITATA: harkaiztietako belardi oso hezeak eta troka itzaltsuak.

BANAKETA: boreoalpetarra. Urkiolako Natur Parkean landare oso bakana da; Anbotoneta Saibiko troka txiki batean soilik aurkitu da.

OHARRAK: landare oso toxikoa da. Oso bakana denez "Euskal Autonomi Erkidegoko Flora Mehatxatuaren Katalogoan", "Interes Berezikoa" kategorian sartuta dago.



SAN ROBERTOREN ZAIN ZAINGORRIA (*Geranium robertianum*)

DESKRIBAPENA: 50 zentimetroko arte haz daitekeen landarea, gorriz tindatutako zurtoinak eta hostoak dituen. Hostoak 3-5 lobulu oso zatikatuak ditu. Loreak, kolorez gorrixkak edo arrosak dira eta binaka agertu ohi dira.

LORALDIA: apiriletik urrira.

HABITATA: leku harritsuak, hormak, hesi biziak eta bide bazterrak.

BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; leku harritsu itzaltsuetan aurki daiteke, Eskuagatzen eta Mañaria inguruko haitzetan adibidez.

OHARRAK: petaloen tamainari begiratuta bi subespezie bereiz daitezke; *Geranium robertianum* subsp. *robertianum* subespeziearenak 9-15 mm-koak dira eta *Geranium robertianum* subsp. *purpureum* subespeziea-



renak 5-9 mm-koak.



LINARIA PROPINQUA

DESKRIBAPENA: zurtoin tenteak dituen 10-25 zentimetroko landare txikia. Hosto estu obobatu-lantzeolatuak ditu, sarritan zurtoinean zeharrezko bertiziloetan kokatua. Batzuetan alboko zurtoin antzuak ditu landarearen gainaldean. Loreak, kolorez horiak dira, ezpain bikoak eta beherantz zuzendutako ezproi batez hornituak.

LORALDIA: apiriletik abuztura.

HABITATA: harkaiztietako erlaitzak, larre harritsuak eta hartxingadiak.

BANAKETA: Iberiar Penintsulako iparraldeko endemismoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Mugarra, Untzillatz, Astxiki eta Alluitz mendietako harkaizetan aurki daiteke.

OHARRAK: intsektuek landare honen loreak polinizatzen dituzte, baina lorearen ezpainak oso itxita daudenez,



soilik erlearen moduko intsektu indartsuak hel daitezke ezproi barruko nektarrera.

URKIOLAKO PARKE NATURALEKO URARI LOTURUKO KOMUNITATEEN FLORA

Parkeko iturburu, erreka eta bestelako leku hezeetan, hainbat komunitate bereiz daitezke, haltzadia, zohikaztegia eta ihidia besteak beste. Leku bakoitzeko uraren joritasunak eta iraunkortasunak landare batzuen ala besteen agerpena baldintzatzen du, komunitate ezberdinak sortuz.

Urkiolako mendiak erreka askoren sorgune mendiak erreka askoren sorgune dira eta gehienek Urkiola, Mañaria eta Mendiola erreketara isurtzen dituzte beraien urak. Errekasto horien bazterretan lurzorua oso hezea denean haltzadia da nagusi. Iturburuetan berriz, erreka bazterrak malkaragoak direnez, ez dira hainbeste putzutzen eta



honen ondorioz, haltzarekin batera pagoa ere ageri da. Haltzaz gain, lurzoru putzutuetan haz daitezkeen beste zuhaitz eta zuhaixka batzuk ageri dira, hala nola, lizarra, sahats iluna eta hurritza. Horien azpian, ohizkoak dira orkatxa, harrautsia, xanpora, sorgin-iratzea, urreboitoia eta xipa-belarra. Bestalde, beti urez asetuta dauden zenbait lekutan zohikazte-

giak agertzen dira. Zohikaztegia larre harro bat dirudi urrutetik, baina benetan esfagno izeneko goroldioaz osaturik dago. Goroldio hauek elkarren gainean haziz doaz eta azpian geratzen direnak ez dira usteltzen, lur urez aseak ez baitu oxigeno askorik izaten. Beraz, usteldu gabeko landareek zohikatza eratzen dute, materia organikoan oso aberatsa den lurzorua, zenbait lekutan ikatzaren ordeztzen dena. Esfagnoarekin batera komunitate honetako bereizgarriak dira landare haragijale batzuk (eguzki-ihintza eta muki-belarra) eta ainarra lauhostoa. Parkeko zohikaztegiak tamaina txikikoak direnez eta zohikatzik ia sortzen ez dutenez esfagnadi izena hartzen dute; aipagarrienak Saibi eta urkiolagirre hegaldako mendi hegaletakoak, Makatzetakoa eta Eskuagakoak dira.

Urari lotutako komunitateen artean larre hezeetan agertzen diren ihidiak daude ere; oso urriak dira eta Parkean dauden bakarrenetako batzuk Urkiola errekaaren alboko belardietan ikus daitezke.

AINAR ILETSUA (*Erica ciliaris*)

DESKRIBAPENA: zurtoin bihurria duen 30-70 zentimetroko mulua. Hosto txiki obalatuak ditu, hiruko (batzuetan lau) bertiziloetan eza-



rrita, zurixkak azpialdetik eta ertz ziliodunak dituztenak. Loreak, kolorez purpurak, kopa itxuradunak eta zertxobait kurbatuak dira eta lore mordoak eratzen dituzte adarren muturrean.

LORALDIA: uztailetik urrira.

HABITATA: zohikaztegi bazterrak, esfagnadiak eta txilardi hezeak.

BANAKETA: Europako



isurialde atlantikoa. Urkiolako Natur Parkean txilar arrunta da; Saibi eta Urkiolagirre esfagnadietan aurki daiteke.

OHARRAK: ainar lauhostoarekin nahas daiteke, baina azken loreek kolore argiagoa dute eta lore mordo trinkoagoa eratzen dute, gainera hostoak lau bertiziloetan ditu eta ez hirukoetan.

OROILOREA (*Myosotis lamottiana*)

DESKRIBAPENA: errizoma herrestariak eta estoloiak dituen 20-70 zentimetroko landarea. Zurtoin angelutsuak eta latzak ditu. Hostoak luzangak dira, lantzeolatuak, zertxobait iletsuak eta peziolo gabeak. Lore txikiak ditu, kolorez urdin argiak, horiak erdialdean eta zertxobait arrosak gazteak direnean.



LORALDIA: apiriletik uztailera.
HABITATA: haltzadiak, pagadi hezeak, iturburuak eta belardi itzaltsuak.
BANAKETA: Europako hego-mendebaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Txakurzulotik Atxartera doan pista gurutzatzen duten erreka-etoetan aurki daiteke.
OHARRAK: landare hau maitasunaren eta leialtasunaren ikur bat da.



ren eta leialtasunaren ikur bat da.

ZOLDA-BELAR TXIKIA (*Symphytum tuberosum*)

DESKRIBAPENA: tuberkuludun errizoma herrestariak dituen 10-60 zentimetroko landarea, zurtoina zertxobait okertuta duena. Hosto handi lantzeolatuak ditu zurtoinean zehar. Loreak kolorez hori argiak dira, tutu forma-koak eta lore mordo txiki esekietan kokatuta.



LORALDIA: martxotik maiatzera.
HABITATA: haltzadiak, baso hezeak eta lenarretako arrakala itzaltsuak.
BANAKETA: Europako mendebaldea, erdialdea eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; Mañaria, Mendiola eta Urkiola erreketako ia edozein haltzaditan aurki daiteke.



OHARRAK: landare jangarria da eta bere hosto eta sustrai gazteekin bitaminetan joria den zukua egin daiteke. Zauriak sendatu eta hezur apurtuak soldatzeko ere erabil daiteke.

EGUZKI-IHINTZA (*Drosera rotundifolia*)

DESKRIBAPENA: 5-15 zentimetroko landare intsektiboroa, oinaldean hostoen erroseta duena. Hostoak zirkularrak dira eta guruindun ile luze gorritz estalita daude. Loreak txikiak eta zuriak dira eta zurtoin mehe baten bukaeran azaltzen dira.

LORALDIA: ekainetik abuztura.
HABITATA: zohikaztegiak, esfagnadiak, iturburuak eta lurzoruz putzutuak.
BANAKETA: zirkunboreala. Urkiolako Natur Parkean landare urria da eta lokalizatua den arren, esfagnadi gehienetan ageri da, Saibi eta Urkiolagirreko mendi hegaletakoak horien artean.

OHARRAK: eguzki-ihintza intsektuz elikatzen den landare haragijalea da. Intsektuak bere ile itsaskorretan itsatsi



egiten dira eta ondoren liseri jariakinen bidez landareak bere harrapakina liseritzen du.

KUKU-BELARRA (*Aquilegia vulgaris*)

DESKRIBAPENA: zurtoin adarkatuak dituen 35-100 zentimetroko landare handia. Kolorez urdin-bioletak diren 15 lore handi arte edo gehiago izan ditzake. Loreak beherantz okertuta egon ohi dira eta petaloek gaketun ezproi luze bat dute atzerantz zuzenduta.

LORALDIA: apiriletik ekainera.
HABITATA: baso, larre eta bide bazterretako leku fresko eta hezeak.
BANAKETA: Europako mendebaldea, erdialdea eta hegoaldea. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da; erraz aurki daiteke Mañariatik Urkiolako igorera eta Txakurzulotik Atxartera doan pistaren bide bazter hezeetan.

OHARRAK: Aquilegia pyrenaica espeziearen antzekoa den arren, erraz desberdindu daitezke, azken hau



txikiagoa delako eta harkaiztietan hazten delako.

PEDICULARIS SYLVATICA

DESKRIBAPENA: 5-25 zentimetroko landarea, erdiko zurtoin tente bat eta luzeagoak diren alboko beste zurtoin etzanak dituen, purpura kolorez tindatuak. Hosto pinatuak ditu, lantzeolatuak. Loreak, kolorez arrosak edo gorriak eta bi ezpaindunak, infloreszentzia labur batean ageri dira.

LORALDIA: apiriletik ekainera.
HABITATA: esfagnadiak, larre hezeak eta erreka bazterrak.
BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare urria da; Saibi eta Urkiolagirreko esfagnadietan aurki daiteke.

OHARRAK: landare hemibizkarroia da; bere hosto berdeekin fotosintesia burutzen duen arren, alboko landareen sustraiak parasitatzen ditu sustrai zupatzaile txiki




eta zuri batzuen bidez.

KORRADU-BELARRA (*Ranunculus ficaria*)

DESKRIBAPENA: 10-30 zentimetroko landarea, kolorez berde ilun distiratsua. Hostoek peziolo luzea dute eta bihotz edo giltzurrun erakoak dira. Loreak banaka ageri dira, kolorez horiak eta denbora igarotzean zuritzen diren petalo estu ugari eta hiru sepaloz hornituak.

LORALDIA: otsailetik maiatzera.
HABITATA: baso eta larre hezeak.
BANAKETA: ia Europa osoa. Urkiolako Natur Parkean landare arrunta da. Urkiola erreka-etoetan aurki daiteke.
OHARRAK: landare pozoitsua da, protoanemoni-izenekoa sustantzia toxikoa du.








Arrain Editoriala

Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz
euskaraz idatzitako lanarik handiena

ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK



**ARRAIN
EDITORIALA**
TLF: 94 490 34 04
e-mail:
arrain100@gmail.com
web:
www.arrain.es



ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK

Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz euskaraz idatzitako lanarik handiena



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

“Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundutakoa”